



Aho batez; Iruñera!

Sakanako alkateek Altsasuko auzian Justizia eske eginen den manifestazioan parte hartzera deitu dute / 12-13

50 urte bete ditu Magotteaux-ek

Urdainen mustu zuten Magotteaux Navarra 1968an. 44 langilerekin hasi ziren eta, gaur egun, 123 langile dira / 2-3

Lakuntzako Udalak milioi bat euroko aurrekontua izanen du; 105.000 euro inbertsioetarako / 9

Gurseko eremuan izan ziren 28 sakandarrak oroituko dituzte 6 udalek ekitaldian / 11

Trimaneko langileek enpresa ez ixteko aldarrikapena kalera aterako dute gaur, 19:00etan, Altsasun / 10

Trasteando taldeak Hispanoamerikatik ibilbide musikatua eginen du igandean, lortia kultur gunean / 22



II. Lakuntzako Emakumeen Txirrindularitza Trofeoa jokatu da bihar 15:30ean / 18

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

1968ko abuztuaren 2an mustu zuten Magotteaux Luzuriaga lantegia Urdiainen. Victorio Luzuriagaren eskutik iritsi zen nazioarteko enpresa Sakanara. Garaiko Nafarroako Foru-Aldundiak sustatutako industrializazio planaren barruan eraiki zuten enpresa. Magotteaux lantegiaren mustutzeak Urdiain eta Sakana eraldatu zituen, izan ere, zonaldea industrializatu zuen eta ohituraz herri nekazaria eta abeltzaina zena industria gune garrantzitsua bihurtu zen. 2001. urtean Sigdo Koppers enpresak Magotteaux erosi zuen, eta 2008. urtean Urdiaingo lantegia handitu zuten, eta 100 metro koadroko nabea mustu zuten.

44 langile hasi ziren duela 50 urte Urdiaingo Magotteaux Navarra lantegian. Gaur egun, 123 langile ditu lantokiak. Kopuru honek "enpresak urteekin lortutako ekoizpen mailari erantzuten dio", Juan Eduardo Errazuriz Sigdo Koppers-eko presidentea azaldu zuenez. Mende erdian 700 bat langile pasatu dira lantegitik.

Historia

Grupo Magotteaux enpresa Vauxen sortu zen, Belgikan, 1920. urtean. Altzairuzko bolak egiten espezializatuta zegoen. Urdiaingo lantegia enpresaren garapeneren lehenengo urratsa izan zen. Egun, Magotteaux-ek hamabost lantegi ditu, hamaika herrialdetan, munduko lau kontinentetan. Gainera, 24 saltoki gune ditu munduan zehar ere. Hala ere, Sakanarekiko kronpromisoak "irmoa" mantentzen jarraitzen du. Magotteaux-en garapenak Urdiaingo herriaren industria garapenarekin bat egin zuela adierazi zuen Errazurizek.

50. urteurrena ospatu du Urdiaingo Magotteaux Navarra enpresak. Porlan, meatzari eta siderurgian sektoreetan espezializatutako erresistentzia handiko galdaketa piezak eta aleazio altzairuak ekoizten espezializatuta dago. Aurten fakturazio



Enpresako buruak eta politikariak altzairuaren isurketa zuzenean ikusten. ARTXIBOA

Urdiain eraldatu zuen lantokia

Duela 50 urte mustu zuten Urdiaingo Magotteaux lantegia. Herri nekazari eta abeltzainetik industria gune garrantzitsua bihurtu zen. 44 langile hasi ziren 1960ko hamarkadan eta, gaur egun, 123 langilek lan egiten dute lantegian.

marka gaudituz dute 31 milioi euro fakturatuz eta 7.500 tonako ekoizpenarekin. Etorkizunean 9.000 tonako ekoizpena gaintzea aurreikusten dute, hau da, %20 haztea aurreikusten dute. Zifra horiek "lantegiko langileen lorpena" direla esan zuen Errazurizek.

Etxean bezala

Sigdo Kopper enpresako administrazio kontseiluko bost kideetatik hiruk Nafarroako eskualde "eder eta historikoan" jatorria dutela azaldu zuen

Errazurizek. Baztanetik Txilera joan omen ziren haren senideak, eta, ondorioz, Urdiainen "etxean bezala sentitzen zirela" esan zuen.

Aurreko larunbatean, garagarrilaren 9an, langileen senideendako Urdiaingo Magotteaux lantegiaren ateak zabaldu zituzten. Langileen seme-alabek eta senideek lantegia barrutik ikusteko aukera izan zuten eta, besteak beste, altzairuaren isurketa nola egiten den ikusi zuten. 325 pertsona pasatu ziren jardunaldian.

Asteartean, garagarrilaren 12an, enpresako buruak eta kudeatzaileak izan ziren Urdiaingo lantegian, baita Nafarroako Gobernuko ordezkari politikoak ere: Urdiaingo alkatea David Carmelo Oroz, Magotteauxeko kudeatzailea Sebastien Dossogne, Roberto Mosci enpresako *plan manager*-a, Sigdo Kopperseko presidentea Juan Eduardo Errazuriz, Uxue Barkos Nafarroako presidentea, Ainhoa Aznarez Nafarroako parlamentuko presidentea, Manu Aierdi Nafarroako presidente ordea,

Txileko enbaxadore Espainian Jorge Tagle, Belgikako enbaxadorea Espainian Marc Calcoen eta Nafarroako Enpresari Elkartearen presidentea Jose Antonio Sarria. Nafarroako parlamentuko alderdi guztiak ordezkatuak izan ziren ere Urdiainen. Guztira, 200 pertsonak parte hartu zuen 50. urteurren ospakizun instituzionalean.

Atzo, gaur eta bihar

"Benetan ikaragarria" irudituzitzaion Uxue Barkos Nafarroako presidenteari altzairuzko isurketa zuzenean ikusteak. Nafarroan Magotteaux "bost hamarkada hauetan industria, ekonomia eta gizarte garapeneren adibidea" dela adierazi zuen Barkosek. Lantegia mustu zutenetik asko hazi zela gaineratu zuen. Hortaz, mendi erdi honetan konpainiaren kudeaketa, bertan lan egiten duten pertsonak, eta merkatuaren eskaintza berrietara egokitzeko eta enpresa "sendo, finkatu eta berritzailearen" adibide dela esan zuen.

"Hemendik kamioi batean pieza bat ateratzen denean, ez da bakarrik metalezko pieza bat ateratzen. Pieza horien atzean gauza asko ateratzen dira. Gal-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

dategian eskulana oso garrantzitsua da, eta pieza on bat egiteko moldeatzaile onak behar dira. Beraz, ez ditugu bakarrik metalezko piezak egiten, langileak ere trebatzen ditugu". Roberto Mosci Magotteauxeko *plan manager*-a da eta lantegiaren 50. urteurrena "egin genuena eta egiten ari garenaz" hausnartzeko momentu egokia zela esan zuen. Hortaz, enpresa asko garatu dela esan zuen. Gainera, "pertsonek formazioan, lan osasunean eta ingurugiroaren babesean inbertitu dutela" adierazi zuen Mosci.

Ildo nagusiak

Juan Eduardo Errazurizek ere Magotteuxeko ildo nagusiak goraiatu zituen: langileak eta ingurugiroa. Errazuri Sigdo Koppers enpresaren presidentea da, 2001. urtean Grupo Magotteaux erosi zuen enpresa. Azken urteetan, "gizarte-erantzukizunean eta ingurugiroa zaintzeko, industriaren eta gizartearen eskaintza erantzuteko, goi kalitate estandarrek betetzeko, ingurumena babesteko eta energia modu efizientean erabiltzeko" apustua egin dutela adierazi zuen Errazurizek. Hortaz, lan osasun arloan eta ingurugiroaren babesean aurrerapausoak eman dituztela azaldu zuen. "Aurrera jarraituko dugu. Gure helburua garapen jasagarria da eta".

Arrakasta eta porrotaren arteko desberdintasuna "gure esentzia eta baloreak alde batera utzi gabe" aldaketei aurre egitea dela azaldu zuen Errazurizek. "Munduko eta bertako krisi ekonomikoekin eta Txinako eta Indiako konpetentziarekin une latzak pasa izan ditugu, baina lan taldearen irmotasunari esker arazoak jasaten jakin izan genuen". Hortaz, kudeatzaileek "aldaketak" ikusteko ahalmena izan zutela eta horiek "aukera berriak" bihurtzea lortu zutela esan zuen.

Garapena

"Industria birmoldaketa" izan da azken hamar urteetan Magotteaux taldean. Hortaz, 2008an Urdingo lantegian ekoiztutako %90 "iberiar penintsulan saltzen" zela azaldu zuen Errazurizek. "Ekonomia krisiarekin ingeniarritza eta teknologian inbertitu genuen, eta langileek esfortzu handia egin zuten". Ondorioz,



Magotteaux Navarra enpresak Urdiainen duen lantegia. ARTXIBOA

gaur egun ekoizpenaren %88a esportatzen dute. Hamar herrialdeetara esportatzen du enpresak, eta herrialde horietan Magotteaux "ezagunak" dira. "Epeak betetzeko seriotasunagatik eta produktuen kalitatearengatik gara ezagunak".

"Bizirauteko bezeroek eskatzen duten kalitatea, prezioa eta epeak bete behar ditugu", azaldu zuen Roberto Mosci, Magotteaux-eko *plan manager*-a. Beraz, garatzen jarraitzeko teknologian inbertitu dutela gaineratu zuen.

Pertsonak

Langileak Urdiango Magotteaux Navarra lantegiko balore handienetarikoa direla goraiatu zuten enpresako kudeatzaileek. Hortaz, asteartean egin zuten ekitaldian esker ona eta txalo zaparrada jaso zuten lantegian lan egiten duten 123 langileek. "Hau dena ez zen posiblea izanen Magotteaux-en historian parte hartu duten pertsonak gabe", adierazi zuen Sebastien Dossogne Magotteauxeko kudeatzaile orokorrak.

Magotteaux Navarrako Urdiango lantegiaren historian 700 pertsonen lan egin dute. Lantegiak herria eraldatu zuen,

"HAU DENA EZ ZEN POSIBLEA IZANEN PARTE HARTU DUTEN PERTSONARIK GABE", SEBASTIEN DOSSOGNE



50. urteurrenean ospakizunean egondako gonbidatuak. UTZITAKOIA

eta denborarekin lantegia ere aldatuz eta hedatuz joan da. Gainera, datozen urteetarako plan estrategiko berria jarriko dute martxan lantegia modernizatzeko eta automatizatzeko.

50. urteurrena ospatzeko ekitaldian Urdiango lantegiaren istorioak biltzen dituen dokumental txiki bat aurkeztu zuten. Bertan, langileen bizipenak eta esperientziak agertzen ziren. Eduardo Goikoetxea eta Ramon Gonzalez langile ohien esperientzia azaltzen zen, esaterako.

Goikoetxea eta Gonzalez lantegiaren aldaketan lekuko izan dira. Izan ere, enpresa mustu zutenean hasi ziren bertan lanean, eta duela gutxi erretiratu ziren. "Bizitza osoa" eman dute Magotteaux-en lanean, horrek dakartzan "zortearekin". Etxetik

700 LANGILE PASA DIRA URDIANGO MAGOTTEAUX NAVARRA LANTEGITIK 50 URTE HAUETAN

Magotteaux Navarra zifretan

Historia

- Grupo Magotteaux enpresa 1920. urtean sortu zen Vaux-en, Belgikan. 1968. urtean Urdiainen mustu zuten Magotteaux Navarrako lantegia. 2001. urtean Sigdo Koppers enpresak Grupo Magotteaux erosi zuen.

Langileak

- Lantegia 44 langilerekin hasi zen. Gaur egun, 123 langile ditu lantegiak. Bost hamarkadetan 700 langile pasa dira.

Irabaziak

- 2017. urtean 31 milioi euro fakturatu zituen. 7.500 tona ekoiztu zituzten, eta 9.000 tona ekoiztea aurreikusituta dute.

gertu zegoen lantokia, beraz, ez zuten kotxea hartu behar ere. Batzuk ikasketak amaituta sartu ziren lantegian lanean, beste batzuek nekazaritza utzi zuten eta industrian murgildu ziren.

Goikoetxeak eta Gonzalezek familia enpresa bat bezala ikusten zuten Magotteaux, gainera, aita-semeek lan egin dute lantegian eta, etorkizunean, bilobek ere bertan lan egitea "gustatuko" litzazieke. Cesar Goikoetxea eta Borja Gonzalez semeentzako "ohore" bat da Magotteaux-en lan egitea. "Gazte ginela udan zerbait irabazteko hasi ginen hemen lanean eta gero helduak ginela hemen hasi ginen lanean", Goikoetxearen esanetan.

"Familia bat bezala gara. Guztiok elkar ezagutzen dugu eta harreman ona dugu". Martin Perez enpresako komiteko kidea da. Hasi zenean "koba bat bezala" ikusten zuten lantegia, "beltza". Iritzi berdinekoa da Angel Saldaña. "Bizitza osoa" darama bertan lanean eta eraldaketaren lekuko izan da ere: "hasi nintzenean beltza zen dena eta kea zegoen". Magotteaux-eko Urdiainen aldaketa nabarmenak izan direla diote langileek.


ASTEKOA
**XABIER REPARAZ
ESTRAMIANA**

Pagoen itzalpean

Basoaren barrenean, maldan gora, ipar haizearen maitale dugu pagoa. Sakontasun hezearen irudi, orbel azpiko lur beltzean ditu sustraiaik tenkaturik. Ekaitz eta tximistei ertsiz, bere larruzal argiak gor-

derik ditu urteen aztarnak. Beso luzeen antzera, bere azpiko harkaitzak itzalez estaltzen ditu. Handitasun patxadatsuan, hosto berdeen dantzaz gozatzen du neguak haiek eraman eta lozorroan uzten duen arte. Udaberriaren esnatzean bere mantuaz estaliko ditu berriz ere mendiak, haren azpian dabilzanez itzala inposatuz.

Zaharra da pagoa. Hark gogoan ez badu ere, gazte izan zen behin.

Pago handien menpe, eguzkiaren izpiei uko egin behar izan zien maiz. Zaharraren itzalpean, berriak aukerak eskas. Itxaropenen hondon, burrunba izugarri batek ekarri zion aukera. Aizkorakada zorrotzek itzala ematen zien hura lur jotzera behartu zuten. Eroritako erraldoi haren gorputza txikitzen zuten bitartean, eguzki izpiek bidea aurkitu zuten, bizitzeko irrikaz, zain zituen zuhaix-

ketara. Orduan lehia. Zuhaitz ñimiño haiek nork zein itzalaz estali, nork azkarrago burua altxa besteen gainetik. Saria, basoko lur zati hartan beren itzala besteei inposatzeko aukera.

Pago zaharrak irabazi zuen anaiarteko biziraupen lehia hura. Hark tenkatu zituen sustraiaik sakonen, eta hostoak altxatu goren. Urteak igaro dira harrezkero. Urte luze izan da bere

lur zatiaren jaun eta jabe. Orain ahots finak entzuten ditu bere oinetan eguzki eske. Gogoan du bera han izan zenekoa eta aizkorari beldur dio. Goiz batean, isiltasuna basoan, gasolina usaina airean, motozerren kate hortzak zorrotz, hauen garrasiak burrunba ondorio. Lurretik azken hatsak, han begien bistan semeak, gora eta gora bizitzaren gupilean biraka, etorkizun gose.

GUTUNAK

Bidegabekeria, Estatuaren bidea

ARANTZA BENGOTXEA INTXAUSTI, JAVI PAZ MIÑO ETA HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA ALTSASUKO EH BILDU

Bidegabekeria, Estatuaren bidea; hori da azken urte eta erdi luzean Altsasun bizitzen ari garena. Jakin badakigu abertzaletasun espainiarrarentzat Nafarroan gertatzen dena estatu auzia dela. Hori dela eta, haien makineria guztia erabiltzen dute hori kontrolpean izateko. Horren adibide dira "agostazo"-a edo berriki egin duten euskararen aurkako manifestazioa. Kontrolatzeko eta erreprimitzeko makineria, argudiorik ezean gezurra eta bidegabekeria erabiltzen dituen.

Bidegabekeria hori areagotu egin da Auzitegi Nazionalen egindako iruzurrezko epaiketaren ondoko epaiarekin. Epai injustu horrek Guardia Zibilaren bertsioa baino ez du kontuan hartu; defentsak aurkeztutako adituen zein lekuko frogari, Altsasuk Ferietako goizalde hartan gertatu zena eta gertatu ez zena frogatzen zutenei, entzungor egin die. Baita desitxuratu ere kasu batzuetan, denok ikusi ditugun bideoak kasu. Bideoek argi era-

kusten zuten akusazioaren lekukoak gezurretan aritu zirela, bai polizia ezberdinen aurrean, baita tribunalaren aurrean ere. Ez dago esan beharrik lekukoek egia esateko betebeharra dutela. Bitartean, epaiak "aurrez antolatutako planaz" hitz egiten du, horretarako inolako frogarik aurkeztu gabe. Defentsak frogatu zutena, aldiz, kontrakoa izan zen. Epaiak berriaz baztertzaren ditu taberna barruan erasorik izan ez zela baieztatzen duten lekukoek testigantzak, edota lekuko batek Foruzaingoaren aurrean egindako deklarazioa ondok manipulatua izan zela baieztatu izana.

Egia da muntaia honen zati bat desmuntatzea lortu dela; ezin izan diote justifika ezina den terrorismo akusazioari eutsi. Horrek, baina, Estatu bidegabearen beste estutze bat ekarri du: mendekua. Aske zeuden lau gazteak atxilotzeko gure herria militarki okupatu zuten eta, epaia jakin eta lau egunetara, kartzelaratuak izan ziren, ihes egiteko arriskua argudiatuta. Urte eta erdi astero epaitzarian bertaratuta, 50 urteko zigorrari aurre egin eta beren burua epaitzarian aurkeztu eta gero, ihes egiteko arriskuaren aitzakia ateratzen dute. Ez dira

terroristak, baina terroristatzat aurkeztu nahi dituzte. Gure gazteak kartzelan, erasotzaile faxistak edo gaizkile dirudunak aske dauden bitartean, baita Estatutik kanpo bizitzen ere.

Baina bidegabekeria honi orain arte egin dugun bezala egingo diogu aurre. Herri gisa, elkarrekin eta duintasunez. Gure gazteen familiek erakutsi duten duintasunarekin. Sententzia justu bakarra absoluizioa delako. Denak gurekin izan arte justiziarik egingo ez delako.

Larunbatean, hitzordu garrantzitsua dugu Iruñean. Kaleak elkartasunez, justiziaz eta duintasunez beteko ditugu, aldarri ozenez: **ALTSASUKOAK ASKE!**

Altsasu kasua deiturikoaren ibilbidea

AINHOA CORCUERA MAZKIARAN ETA JESUS MIGUEL IMAZ PRIM

ALTSASU MEMORIA

Altsasu Memoria taldeak bere elkartasuna agertu nahi die herriko gazteei eta errepresioaldi berri honek eragin dien pertsona guztiei.

Gurea memoria lantzen duen taldea izanik, urteak daramatzagustoria eta testigantza gogorak biltzen eta kontatzen. Altsasu, Nafarroa Independentean zegoen

herri bat zen, lasaitasunean bizi zena eta euskaraz komunikatzen zena, batzarrak egiten zituena eta auzolanean aritzen zena herriaren garapenean aurrera egiteko. 1512ko inbasioak, ordea, gure izaera ezeztatzen saiatzeaz gain, gerraz jositako garaia sortu zuen Espainian eta guban zuzenean eragin.

Justizia. Askotan erabiltzen dugun hitza da, baina Altsasun sekula gauzatu ez dena. 1936an 150 lagun baino gehiago zigortu zituzten fusilatzerara, Puerto de Santa Maria bezalako urrutiko kartzeletara dispersaturik, zigorguneetara... edo tribunal militarrek emandako sententzietara. Ondoren Ordena Publikoko Tribunalala sortu zuten, eta hortik ere altsasuarrak pasa ziren. Erregimenaren erreforman Auzitegi Nazionalen bihurtu zuten, euren Intsignia Bukea dena harrez geroztik. Bere gidariak, Garzon epaileak, *Dena ETA* da leloarekin ibilbide orri bat diseinatu zuen, eta probintziatarako delegaritzak dena Auzitegi Nazionalera bideratzen hasi ziren. Delegaritzak horiek, sekula ez zuten ezer esan gure herriko pertsonen aurka Gerra Zikin kasuak egon zirenean, eta ikerketa saiakera guztiak blokeatu zituzten. Inpunitatea berriro,

sekula ez baita egon kondena bakar bat ere gure bizilagunen aurka atentatu zutenentzat.

Herri mugimenduen dinamikak azken urteetan Altsasu hobe bat ekarri dute, solidarioagoa, parte hartzaileagoa eta biziagoa, eta kosta ahala kriminalizatu nahi izan dute. Komunikabideak, epaileak, poliziak, biktimen elkarteak... gezurretan aritu dira oso modu lotsagabeen. Gazteriak oraindik ere sufritzen ditu kontrol soziala helburu duten polizia-kontrol ugari. Kontrol horietako batean hil zuten Lakuntzako Mikel Arregi, eta, tiro egin zuen Guardia Zibilak, bi hilabeteko zigorra besterik ez zuen jaso. Komunikabide askotan agertu den datua da Altsasu eta Sakana direla Europa osoko polizia tasarik handiena dutenak biztanleko.

Gure kolektiboan ere jazarpena eta isuna jasan genituen Gobernuaren aldetik Emilio Iguzkizari omenaldia egin genionean. Gure ikerketetan ikusi dugunez, desmilitarizazioa, Guardia Zibilaren presentzia eta bere rola gure herrian, aspaldiko eztabaida direla eta naturaltasunez onartu behar ditugula, eta ez pertsonak eta kolektiboak kriminalizatuz.

STOP MUNTAI POLIZIALAK!!!

Osorik: www.guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



**Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra**

BAZKIDEAK



Dendariak "BEZik gabeko egunen" kontra

Nafarroako 570 dendak halako kanpainak bezeroak nahasten dituztela diote eta zergarik gabe erosteak konnotazio negatiboak dituela gaineratu dute. "BEZik gabeko egunetan zerbitzu publikorik eta zergarik gabeko egunetan hobe ez erostea"

SAKANA

Merkataritza gune handiek askotan bere eskaintzak Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabeko egun, BEZik gabeko egun gisa iragartzen dituzte. Denda txikiek ez dute gogoko praktika hori. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak eta Altsasuko Dendarien Elkarteak Nafarroako beste bederatzikarterekin eta Denok Bat federazioarekin batera praktika horren kontrako kanpaina egin dute.

570 dendariendako BEZik gabeko egunen moduko kanpainak "kontsumo engainagarri eta oldarkorra sustatzen dute". Azaldu dutenez, "orokorrean kontsumitzaileak uste du BEZa altuenari dagokiola deskontua (% 21eko deskontua) eta hori ez da beti horrela izaten, deskontua produktuaren BEZaren arabera baita, gehienetan %21a baino baxuagoa".

Dendariak salatu dute "formatu oso bortitzeko" halako kanpainak ohikoak direla hedabideetan. "Kontsumitzaileari iristen zaion mezua zergarik gabe erosten duela da. Baina hori gezurra da. Azken finean, guk guztiok Foru Ogasunari ordaintzen diogun Balio Erantsiaren gaineko Zerga marketing



Tokiko dendek gertuko salmenta baten alde egiten dute egunero. ARTXIBOA

tresna gisa erabiltzen dute operadore handiek".

Tokiko ereduaren abantailak

Elkarteetan dauden tokiko dendek uste dute "merkatari gune handiek egiten dituzten ekimen horiek Nafarroa guztia-erendako kaltegarriak" direla. Euren beste eredu bat dela nabarmendu dute: "gertuko salmenta baten alde egiten dugu egunero, geure udalei eta mankomunitateei zergak ordainduz eta, horrela, tokiko erakundeen finantziazio-iturri garrantzitsu

batean bihurtzen gara". Dendarien iritziz, "denon artean gizarite zentzudun eta jasagarri bat garatu beharrean, kanpaina horien erruz gure bizilagunek BEZik gabeko egunetan erostea hobe dela uste dute; hau da, zergak ordaintzen ez ditugun egunetan, osasun edo hezkuntza laguntzen ez dugun egunetan, zerga paradisuetan zergak ordaintzea hobe den egunetan". Bortzirietako, Malerrekako, Baztango, Sakanako, Tuterako, Errotxapeako, Sanduzelaiko eta Txantreako dendek bat egin dute.



Etxarriko Euskaraldiko hamaikakoa. Irailean izena emateko epea zabalduko da.

Hamaikakoarekin Euskaraldia bidea egiten hasi da Etxarrin

Euskararen erabilera handitzeko ariketa kolektiboa da Euskaraldia; azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingen da

ETXARRI ARANATZ

Udazken akaberako kontu bat da Euskaraldia, bai. Baina hura behar bezala prestatzeko beta behar da eta Euskal Herriko 300dik gora herritan bezala Etxarrin ere hasi dira lanketa egiten. Izan ere, Euskaraldia Euskal Herri guztian aldi berean egingen den ariketa kolektibo bat da. Helburua 11 egunez euskara ahalik eta gehien erabiltzea da, bai kalean, nola tabernan, bai dendan, erakunde ofizialetan... "Jendeak euskaraz gehiago egin dezan helburua du egitasmoak".

Herritarrek dira Euskaraldiko protagonistak. "Egunerokoan ditugun harremanetan, hizkuntzarekin ditugun inertiak astindu eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatu nahi da". Horretarako, euskaraz hitz egiteko gai direnei, euskaraz hitz egiteko gonbidatuko dituzte. Haiek

Ahobiziak izanen dira. "Lehen hitza, gutxienez, beti euskaraz egingen dute. Euskara ulertzen duten guztiei euskaraz egiten diete". Bestetik, euskara ulertzeko gai diren pertsonak daude, **Belarriprestak**. Euskara ulertzen du, eta baliteke hitz egiteko ere gai izatea. Trebeziaren arabera euskaraz edo erdaraz erantzunen du. Elkarrizketa elebiduna sortzean bi hizkuntza eroso sentitzen diren hizkuntza aritzeko aukera izanen dute.

Etxarri Aranatz heren egun aurkeztu zuten ariketa eta iraila bitartean haren berri emanen dute. Gero etorriko da izen ematea. 11k dagoeneko hartu dute Ahobizi edo Belarriprest izateko konpromisoa: Olatz Aldasoro, Juli Peruski, Pedro Lizarraga, Irati Igoa, Balen Ormazabal, Garami Korroza, Dolores Lopez de Sabando, Idoia Agirre, Sara Otamendi eta Aitor Zubieta.

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:


- Itziar Nazabalekin Calafellen egindako egonaldiaz
- Lakuntza-Aralar mendi lasterketako irabazle Beñat Katarainekin
- Manolo Larraza Marinekin Larraza arduek enpresaren historiaz

Ostiralero 9:30ean

SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



beleixe
107.3 FM
guaixe.eus-en ON LINE

Aralar Elkartearen eguna bueltan da

Igande eguerditik aurrera ospatuko da Aralarko guardetxea zegoen tokian. Han karpa bat jarri eta han izanen da ospakizuna. Aurretik elkarteak dituen proiektuak aurkeztuko ditu: artzain gazta, guardetxea, larre berritzea eta erabilera plana

SAKANA

Agorrilean ospatu bada ere, Aralar Elkartearen azken urteetako ospakizunak San Juan aurreko igandean izaten ziren. Hala izan zen azkena, 2007an ospatu zena. Elkarteko presidente eta Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkinek esan digunez, "Aralar Elkarteari indarra emateko erabaki dugu festa berreskuratzea. Beste formatu batean".

Hasteko ospakizuna ez da Kapatarren izanen, guardetxea bertan zegoen tokian baizik. Han karpa handi bat jarriko dute. Eta ospakizuna hasi aurretik Aralar Elkarteko arduradunek esku artean dituzten lau proiekturen berri emanen dute: mendi gazta sortzearena, larreak berreskuratzeke egingako lana, guardetxe berria eraikitzeke dagoen asmoa eta izan diren aldaketak eta mendiaren erabilera publikoko plana.

Elkartez

Araitz eta Sakana ibarretako 19 herririk osatzen duten toki-entitate tradizional bat da Aralarko Elkarte. Izen bereko mendia kudeatzen du Nafarroako erregeek Erdi Aroan emandako pribilegio bati esker. Haren esku



Albiko zelaian eta Kapatarren ospatu izan da festa. ARTXIBOA

daude Aralar mendiko bi mila hektarearen kudeaketa, pagadia eta larreak erdibana. Bestalde, Europar Batasuneko garrantzizko lekua izanik, kontserbazio bereziko eremua da eta Natura 2000 sarearen barruan dago. Hortaz, Nafarroako Gobernuaren eta Europaren legediaren arabera kudeatu behar dute mendia.

19 herriek antzinatik mendiko ondasun guztiak aprobetxatzen dituzte, baina ondasunen gozamenen eskubideen kontura izandako epaitegietako tirabirak ekiditeko, elkarte mendiaren

titularra izatea eskatu du, Bardearen modura. Izan ere, herrialdeko beste mendi batzuekin gertatu zen moduan, Espainiak Aralarren jabetzaren titulartasuna Nafarroako Gobernuari 1987an eman zion. Aralarko Elkarteak mendiaren gaineko titulartasuna eskatu du Nafarroako Parlamentuan eta hura lortzeko kontaktuak izaten ari da gobernuarekin eta hainbat alderdirekin.

19 herri

Horiek dira Aralarko Elkarte osatzen dute herriak. Bi ibarretakoak dira herri horiek. Alde batetik, Araitz aldeko: Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Errazkin, Gaintza, Intza eta Uztegi. Eta bestetik Sakanako: Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Etxarri Aranatz. Elkartearen presidentea Lakuntzako alkatea da beti eta, egoitza, Lakuntzako udaletxea. Elkarteak San Juan egunaren aurreko asteburuan ospatzen zuen bere eguna, Albiko zelai ondoan, Kapatar iturri ondoan. 10-15 bat urte dira ez dela ospatzen.

Igandeko egitaraua

- **12:00** Guardetxe proiektuaren eta elkartearen beste egitasmoen aurkezpena, tokian bertan.
- **13:00** Araizko eta Sakanako aizkolariak.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **17:00** Elustondorekin dantzaldia.



Etxarriarrak herenegungo festan.

Etxarri santus santu, erromeis erromei daitze

Yaniaun San Kiriko patrona ospatu ondoren, harrek San Adriani txanda pasa eta etxarriarrak biyerko prest de. 09:00ten etxe handiyan paretik etxajube bota eta txistulayek aurretik diyuezela, hala fanen die basua. 10:30ak aldia fritada izanen da. 12:00ten meza izanen da. Hure despedittuta, plazan, dantzaiyek aittuko die. 15:00ten bazkaltzia fanen die. 19:00ten herrieñoeko kalejira hasiko debie, Trikidantz 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 2:30era aittuko da plazan.



Pikuxarreko bazkide batzuk. UTZITAKOA

Pikuxarreko aldaketa betean ospatu du 15. urteurrena

Irurtzungo euskal txokoak, Pikuxarreko bazkide egunarekin 15. urteurrena ospatu zuen larunbatean. Eguna Pikuxarreko eraikin berri batean bere aro berria proiektatu duenean ospatu da. Eraikin berri baterako egitasmoa gauzatzear daude.

Lizerraatarrak San Adriango festetako prest

Biyerko Zortzikue Altsasuko auzipetubai eskainita yonen da.

Egitaraua

Larunbata 16


- **10:30** Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.
- **13:00** Meza mendian.
- **17:30** Kalejira Amalur taldearekin.
- **18:30** Menditik jaitziera.
- **19:00** Auzatea alkatearen etxean.
- **19:45** Lizarragako Zortziko dantza, plazan. 2017an jaiotako haurrei festetako zapia ematea.
- **20:30** Dantzaldia Gabenara taldearekin.
- **22:00** Herri afaria (eguraldiak laguntzen badu, plazan).
- **00:00** Dantzaldia Gabenara taldearekin.

Igandea 17

- **11:30** Kalejira Amalur taldearekin.
- **13:00-14:30** Haurrendako puzgarriak, Balanz bikes psita eta tandemak, frontoian.
- **13:15** Meza eta kalejira Amalur taldearekin.
- **16:30 19:30** Haurrendako puzgarriak, Balanz bikes psita eta tandemak, frontoian.
- **19:00** Auzatea, plazan.
- **19:30-22:30** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

Astehena 18

- **11:00** Gosaria, plazan. Goizean, Iñaki Bizkai akordeoilaria giroa alaitzen ariko da.
- **15:00** Kuadrilen bazkari autogestionatua, plazan.
- **17:00-19:00** Haurrendako jolasak. Dindaia fundazioa.
- **19:00** Auzatea plazan eta dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
- **21:00** Herri afaria, plazan.
- **23:30** Gaupasa Joselu Anaiak taldearekin.



BERRIAk 15

ZOZKETA

Zure konpromisoa saritu nahi dugu

BERRIAren 15. urteurrena
BERRIALagunentzako
opariz beteta dator

Sartu webgunean, eta parte
hartu zozketan!

berria.eus/berriak15zozketa

Egin BERRIALagun
ekainaren 19a baino lehen
eta parte hartu zozketan!

1 Astebeteko bidaia hiru
lagunentzat **Costa Dauradara**.

2 Astebeteko bidaia bi lagunentzat
Kanaria uharteetara.

3 Lau eguneko bidaia bi
lagunentzat **Kanaria uharteetara**.




Eroskiko **100 euroko** hamabost
erosketa orga.



BERRIAren **urte osoko** hiru
harpidetza.

Laguntzaileak



berria
BERRIAK15



Irruztunen etxebizitzak alokatzeko aukera izango da. ARTXIBOA

Babestutako alokairu poltsan Altsasuko etxebizitza bakar bat

Nasuvinsa enpresa publikoaren poltsan etxebizitza hutsik eta alokatu nahi dutenak eman dezakete izena

SAKANA

Sakanan ohikoagoa da etxebizitzetan salgai kartelak ikustea, alokatzeko daudela diotenak baino. Horren isla Nafarroako Gobernuaren babestutako alokairu-poltsan dago. Herrialde guztiko 600 etxebizitzako eskaintza jasotzen da poltsan eta horietako bakar bat dago Sakanan, Altsasun hain zuzen ere.

Etxebizitza alokatzen denean, Nasuvinsak jabeari errenta puntualki eta seguru kobratzea ziurtatzen dio. Gainera, gobernuak ziurtatzen du etxea egoera onean bueltatuko dela. Gainera,

arrisku anitzeko aseguruia kontratatzen du.

Gobernuak etxebizitzaren alokairua sustatzeko neurri berriak hartu ditu aurrean. Alde batetik, 3 hileko errenta ordainduko die haien etxebizitzak alokairu poltsarako uzten duten jabeek. 900 eta 1.600 euro arteko diru-laguntza kontratua hastean, etxebizitzaren tamainaren eta kokapenaren arabera. Sakanako etxebizitzari dagokienez, metro karratu erabilgarri bakoitzeko 4 euro ordainduko ditu, 30 euro garajeagatik eta trastelekuaren metroko euro 1.



UTZITAKOIA

Denek gainditu dute

Batxilergoaren Ebaluazioa Unibertsitatean Sartzeko (BEUS) proba egin zuten 56 sakandarrek, guztiek, gainditu dute. Herenegun jakin ziren selektibitateko probak eta Altsasu institutuko 55 (49 D ereduak eta 6 Akoak) eta Iruñeko Biurdana institutuan dagoen beste sakandarra gaindituen artean daude. Orain gradua aukeratzeko lana hartu beharko dute.



Sakandarrak kate-begi

Gure Esku Dagoren deialdiari erantzunez, 175.000 pertsonak Donostia, Bilbo eta Gasteiz giza-kate baten bidez lotu zituzten igandean. Lau autobusetan joan ziren sakandarrak 193. km-ra. Gure Esku Dagotik esan zuten, "ez gara soilik mobilizatu erabakitzeke

eskubidearen alde. Demokraziaren, oinarriko eskubideen eta eskubide zibilen eta politikoaren defentsan ere eman diogu eskua elkarri". Gaineratu zuten, "ziklo berri baten hasiera irudikatzen ari gara. Bizikidetzaren, burujabetzaren eta erabakiaren aro berria".

Burujabetzaren aldarria

Euskal Herri burujabea eta bestelako gizarte alternatiboa eraikitzea helburu duten hainbat eragilek azken hilabeteetan *Burujabe hobe* kanpaina garatu dute Sakanan barna. Elkarlanean antolatutako jardunaldiak larunbatean despiditu zituzten Altsasun. Euskal errepublika burujabearen alde egunero lan egitera deitu zuten.



ARAKIL KULTURA

Arakildarrak ibaia ezagutzen

Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, Arakil ibai bazterrean bizi diren animaliak eta landareak ezagutzeko irteera antolatu zuen pasa den larunbatean. 35 txikik eta helduk parte hartu zuten eta pasioan igarabean, okilen, kastoreen eta bisoiaren aztarnak ikusi zituzten. Bide batez, haiez gehiago ikasteko eta ingurua ezagutzeko aukera izan zuten.

Plaza libreak Altsasuko gazte-ekintzetan

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak jakinarazi duenez, antolatu dituen ekintzetan oraindik plaza libreak daude. Alde batetik, uda-gazte herri-kanpaldian. 12-16 urte bitarteko gazteendako da eta garilaren 9tik 20ra egingen da 10:00etatik 13:00etara. Hainbat ekintzekin gozatzeko aukera izanen dela gazteentzako dute zerbitzutik, esaterako, bukatu bezperan Dantzalekun egingen den kanpaldia. Prezioak errentaren arabera dira. Bestetik, garilaren 10ean, 16:00etatik 19:00etara zaldiz ibiltzeko aukera izanen da. Eta garilaren 24an, berriz, 15:00etatik 20:00etara hondartzara joanen dira. Intxostiapuntan argibideak.

Finkoa ez den karpa erostearen alde egin dute

Altsasuko Udalak sustatutako parte-hartze prozesuan puntuen %45 aukera horren alde dira

ALTSASU

Altsasuarrek udaleko aurrekontuaren 20.000 euro zertara bideratu nahi duten erabaki dute: finkoa ez den karpa bat erosi nahi dute. Bozketan jasotako 3.040 puntuetatik 1.368 (% 45) aukera horren aldekoa izan da. Aurrekontuaren arabera karpa erosi du udalak. Baina 115 puntu alde besterik ez dio atera altsasuarren bigarren gogoko aukerari: haur parke bat estaltzea (1.253 puntu, % 41,212). Atzerago gelditu dira Dantzalekuko tenis pista hobetzeko proposamena (326 puntu, % 10,72) eta kaleetan animalien kakak jaso eta uzteko edukiontzia jartzeko proposamenak (86 puntu, % 2,82).

Estreinako aldia izan da Altsasuko Udalak parte-hartze aurrekontuak egin dituenak. 952 herritarrek eman dute botoa. Haietako % 77,31 (736) udalaren web orriaren bidez eman dira eta gainontzeko % 22,68 (216) udaletxean eta Iortian zeuden hautetsontzien bidez. Baliogabeak 6 izan ziren eta txuriak 1.

Azken bozketarako udalaren Parte-hartze Batzordeak lau aukeratu bazituen ere, proposamenak egiterako garaian altsasuarrek 18 aurkeztu zituzten.



Suhiltzaileak igerilekuan sortutako uholdea konpontzeko ura ateratzen. @BOMBEROS_NA

Aurtengo inbertsioetako batzuk eginak ditu udalak

Lakuntzako Udalak 1.007.640 euroko gastua eta 1.010.678 sarrerak aurreikusi ditu aurtengo aurrekontuan. Haietatik 105.000 euro inbertsioetara bideratuko ditu. Diru-laguntzarik jaso ez duenez, liburutegia ganboikora aldatzeko asmoa atzeratu da

LAKUNTZA

Patxi Xabier Razkin alkateak jakinarazi digunez aurreikusitako inbertsioetako batzuk dagoeneko eginak daude. Horieta bat da kanpo santuan egindako kolunbarioak. Aurretik zeudenak bitan banatu eta zeuden espazioa txukuntzera 23.000 euro bideratu ditu udalak. 24 toki izatetik 68ra pasa da. Lanak egin ahal izateko familiekin harremanetan jarri ziren.

Bestetik, ilbeltzaren 9an igerilekuan uholdea izan zen eta horrek azpiegituran kalteak eragin zituen. Elektrizitate-koadroa aldatu behar izan da. Lanak 40.000 euroko aurrekontua zuten. Haietatik 23.000 euro aseguruak

ordaindu zituen eta gainontzekoa udalak ordaindu du. Egindako beste inbertsio bat, 4.000 euro, kultur etxerako aulki berriak erostea izan zen. Otsailaren 20az geroztik egurrezko aulki tolesgarrien orde, plastikozkoak daude. Ikusleak erosoago esertzeko egindako inbertsioa izan da hori.

Gehiago

Lakuntzan kirol probak dauden igerileku ondoko frontoiko aldagelak erabiltzen dira. Haien konponketa bi urtetan eginen du udalak. Lanak despeditzeko 12.000 euro aurreikusi ditu aurtengorako udalak. Bestalde, ikasturtea despeditzeko

zain daude udaletxean, orduan hasiko baitira parkeko itxitura kentzen eta konpontzen. Horretarako, 9.500 euro daude.

Udalaren asmoa da beheko basoan auzolanean merendero bat egitea. Erretegia, mahaiak, aulkiak eta iturri bat jarri nahi ditu. Baita elbarrituak egoki mugitzeko zorua ere. Lakuntzarrrek lana eginda, materialerako 4.000 euro aurreikusi ditu udalak. Bestetik, Lakuntza eta Uhartte Arakilgo basoko mugako itxitura berritzeko 3.000 euro izanen dira. Bi udalek elkarrekin eginen dute lana. Azkenik, San Saastin musika eskolan berrikuntzak egiteko 2.000 euro bideratu dira.

Diru-laguntzak

Europako Landa Garapenerako Programara diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen Lakuntzako Udalak duela bi urte: liburutegia ganboikora igotzea eta haren tokian gaztetxokoa egitea. Europak laguntza ukatu diela jakinarazi du alkateak. 85.000 euro aurreikusita zituzten liburutegirako eta beste 5.000 gaztetxokorako. Lan horiek egin ahal izateko finantzazio bila segituko dutela nabarmendu digu alkateak.

Bestetik, argiteria gastuan murrizteko lehen pausoa emana du Lakuntzako Udalak eta herrian dauden 400 argi-puntuetatik 100 Led teknologiarekin argitzen dute kalea. Gainontzeko 300ak eta haiei dagozkien koadroak berritzeko elkarlanari heldu dio udalak. Nafarroako beste 10 toki-erakunderekin batera, Irurtzungoa barne, estatuko Idae institutuari diru-laguntza eskatu diote Toki Administrazio Departamentuaren eta Garalurren laguntzaz. Hala, denen artean diru-laguntza lortzeko beharrezkoa den gutxieneko gastura, 300.000 iritsi dira. Lakuntzako Udalak 151.000 euro beharko luke farola guztiak ordezkatzeko. Razkinek esan digunez, erantzunaren zain daude.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak 72.694,66 euro eman dizkio udalari heldu den urtean. Mendigain, Kañada eta Larrañeta kaleetako sareak eta zorua berritzeko lanak eginen dira 2019an eta udalak Erabilera Askeko Funtseko diru horrekin bere zatia ordainduko du, "horrela ez dugu zorrik eginen". Lanak Toki Azpiegitura Planelako laguntzarekin, udalak gordea duenarekin eta Mank-en ekarpenarekin pagatuko dira.

Bazkide izateko aukera



Informazioa:

lagunonakaltsasu@gmail.com

Udako jaietan egizu gurekin topa!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 990970279 • Gettoki auzoa 11 • ALTSASU

Autoen seguruak



JOSE ANTONIO
IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN



Trimango langileen kontzentrazioa Iruñean. ARTXIBOA

Trimango langileek manifestaziora deitu dute

Haien egoerari konponbidea emateko gaur, 19:00etan, manifestazioan abiatuko dira Foru plazatik

ALTSASU

Triman ez itxi! Lelo hori zabalduko dute Altsasun barna lantegi horretako langileek gaur. Trimango Minerals SA enpresako langileak 2016an hasi ziren soldatak berandu kobratzen. Eta lantegian ordezkaritza duen LAB sindikatuak jakinarazi duenez, langileek lau bat hilabete daromatxate kobratu gabe. Hori konpontzeko kontziliazio ekitaldira deitu zuten zuzendaritza, baina ez zen agertu. Beraz, “ez dute langileekiko zorra onartzen”.

Manu Aierdi Ekonomia Garpenerako lehendakariordeak Nafarroako Parlamentuan aitortu zuen Trimango enpresa “zaila” dela. Aierdik jakinarazi zuenez, duela urte bat enpresak Sodenara jo zuen “negozio plan bati babes emateko”. Sodenak oniritzia eta 1,5 milioi euroko mailegua eman ziola jakinarazi zuen. 0,5 milioi sinatzerakoan

eman zioten, irailaren 12an, eta gainontzeko dirua baldintza batzuk betetzean, tartean jardun guztia Nafarroan zentralizatzea.

Kontseilariak azaldu zuenez, hasieran nazioarteko eskaeraren bat lortu zuen enpresak. “Baina egia da gero zailtasunak izan direla. Alde batetik, jardun komertzialaren ondorioz”. Eta, bestetik, “Nafarroako Gobernuak ez den beste administrazio batek eta bankuren batek espedienteak ireki dizkiotelako”. Ondorioz, enpresak aurrelehiaketa aurkeztu zuen eta lau hilabetetan enpresako bazkideak inbertitzaileak bilatzeko “lan handia” egin zutela azaldu zuen Aierdik, baina emaitzarik ez dute lortu. Maiatzaren 21ean enpresak borondatezko lehiaketa aurkeztu zuen, “jarraitzeko asmoz”. Sodenak “inbertsiogileen bilaketan ahal duen neurrian laguntzen saiatzen ari da”.

Neska* gazteen topaketa hartuko du Arbizuk

Barañainen 2016ko abenduan egindako Euskal Herriko gazte mugimenduen autogestio topaketan feminismoa landu zuten 200 neskek*. Handik sortu dira hainbat ekimenetako bat da bihar Arbizun egingen den topaketa

ARBIZU

Euskal Herriko neska* gazteek estreinako topaketa antolatu dute eta Arbizun bihar 150 bat elkartzeko espero dute. Antolatuzaileek biharko egunaren zergatia azaldu dute: “hausnarketa kolektiboak egiten jarraitzea, gure artean saretzeko, Euskal Herriko hainbat txokotan egiten ari garen lanketak ezagutzea, korapilo zaharrak askatu eta berriak sortzeko, ezinbestekoa dugu espazioak konpartitu, proposamenak egin, elkarrekin saretzea”. Egun osoko egitaraua prest zuten, baina Altsasuko auziko manifestazioa dela eta mugatu dute. Arbizun elkartzeko diren emakumezko gazteek hiru tailerretan parte hartzeko aukera izanen dute.

Goizean tailerrak izanen dira. Haietako batean “gure borroka moldeak eta iruditegiak birpentsatzen” ariko dira, “ariketa eta hausnarketa kolektibo bat” izanen da. Beste batean “neska* gazte taldeetan ematen diren kontraesanen eta herrietako errealitateen inguruan” aritzeko aukera izanen dute. Antolatuzaileek azaldu digutenez, “Euskal Herriko mugimendu feministan ez da lehenengo aldia neska* gazteen topaketa batzuk antolatzen direla. Emakume



Neska* gazteen topaketa bat. @EH_NESKAGAZTEAK

gazteok bizi dugun egoera hausnartu eta alternatibak aztertzea izan zen topaketa haien helburua. Bertan parte-hartu zuten kide batzuen eskutik helduko zaizkigu hausnarketa hauek”.

Barañaindik 2017an estreinakoz egin ziren udaleko feministak edo taldeetan lantzeko talde osasun gida atera ziren. Elkarrekin segitu dute eta hizketagai izan dituzte: militantzia eredu, neska* gazte taldeak, diskurtsoa, mugimendu feministan eta gazte mugimenduetan dugun papeira, borrokarako tresnak...

Egitaraua

- **10:30** Harrera. ZirkusBlai, neskak gara, eta zer?
- **11:00** Tailerrak: Kuleroak burura eta salto mundura. Aingura militantzia azaletatik tripetara. Iruditegia eta bihurri.
- **13:00** Asanblada plazan.
- **15:00** Bazkaria. Kontzertua: Ostarbe. Iruñeko manifestaziora.

Iñigo Aritza Ikastolak
18/19 ikasturterako lanaldi osoko
Zientzietan espezialitatea duen
DBHko irakaslea behar du.

Lan eskaintza urte baterako izanen da, luzatzeko aukera duelarik.

Eskatzen da:
· Lizentziatura: zientzietan klase ematea ahalbidetzen duen lizentziatura
· CAP
· EGA edo balioakidea

Baloratuko da:
· EKI ezagutza
· Musika ezagutza
· IKTeian ezagutza
· Taldean lan egiteko gaitasuna
· Ikastolen mugimendua ezagutzea

Curriculumak bidaltzeko epea 2018ko ekainaren 11tik 17ra luzatuko da, curriculumak@inigoaritzza.eus helbidera bidali.

Garapen Agentziak proiektu kudeaketa arduraduna behar du

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) langileen beharrak bete- tze aldera, hautapen-probak eginen ditu proiektu kudeaketa arduraduna kontratatzeko. Hautagai izateko honako baldintzak bete beharko dira: euskararen C1 jakite maila frogatzeko tituluaren jabe izatea edo euskara proba gainditzea; ingeniariaren lizentziatua izatea (garrantzitsua

proiektu kudeaketekin zerikusia daukaten adarretatik izatea); ingelesa jakitea, ahoz eta idatziz (B1); gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea. SGAtik jakinarazi dutenez, urte bateko kontratua eginen zaio hautatutako pertsonari, luzatu daitekeena.

Deialdian interesa duten pertsonen euren eskabideak info@sakanagaratzen.com e-posta helbidean edo SGAREN bulegoan aurkeztu beharko dute astearteko 15:30erako. Probak Utzuga- ne eraikinean eginen dira.

Hondakin teknikaria kontratatzeko Mank-en deialdia

Sakanako Mankomunitateak Hondakin Zerbitzuan aritzeko teknikari bat kontratatu nahi du oposizio-lehiaketa bidez. Lanpostuan interesa dutenek euren eskabideak garilaren 8ko 14:30era arte aurkez ditzakete Mank-en bulegoan. Deialdia gainditzen dutenekin lan poltsa sortuko da, puntuazio ordena segituz eta 5 urtez izanen da indarrean.



Arbizuko hondakindegia.

Gurseko kontzentrazio eremua gogoan

Gurseko errefuxiatu eremuan 1939tik aurrea 28 sakandar izan ziren. Haien giza-eskubideen urraketak gogoratzeko, eta ahal den neurrian zuzentzeko, hainbat udalek ekitaldia antolatu dute gaurko, 18:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

SAKANA

1936ko estatu kolpearen ondoren izan zen gerra galdu zuten askok Frantziara ihesi egin zuten. Iheslari haiek errefuxiatu eremuetan bukatu zuten. Horieta-ko gune bat Iparraldetik gertu dagoen Oloroe-Donamaria herrian Gurseko errefuxiatu eremua prestatu zuten. 1939ko udaberrian 19.000 bat pertsona zeuden han. Naziak Frantziatz jabetzean kontzentrazio eremu izatera pasa zen. Gutxienez, 28 sakandar ziren han: 17 altsasuar, 4 ziordiar, 2 uhartear, 2 etxarriar, eta Izurdiaga, Hiriberri eta Olatzagutiko bana. Zerrendetan irurtzundar bat eta irintar bat ere agertzen dira, baina haien txostenak ez dira agertu eta euren herrietan bizi ziren ez dago argi oinordekorik ez delako opatu.

Irailaren 30ean Nafarroako Gobernuak omenaldia egin zen Gursen bertan izan ziren 500 nafarrei. Haien senideak presente izan ziren ekitaldian. Tartean Sakanatik joandakoak ere bai. Haietako bat zen Juanjo Zelaia altsasuarra. *Gurs, el campo vasco* (2007, Txalaparta) liburua "kasualitatez erosi nuen altsasuar baten argazkia ikusi nuelako". Liburuaren bidez jakin zuen Zelaia bere aita errefuxiatu eremuan izan zela eta CNTkoa zela, gerran egon zela besterik ez baitzuen kontatu. Ekitaldian liburuaren idazle Josu Chuecaren bidez, Irungo AskatasunArte kolektiboak Gursi buruz egindako *Oroimena ahazturik -Un recuerdo desde el olvido* dokumentalaren berri jaso zuten. Alkateari jakinarazi eta udalaren Historia-Memoria Batzordera eraman zuten.

Ekitaldia

Jakinik ibarreko beste herri batzuetako gizonezkoak Gursen izan zirela, Sakana mailako ekitaldia egitea erabaki zen. Ziu-



Gurseko eremuan irailean memoria-ekitaldia egin zen.

GURSEN EGON ETA ZEIN HERRIETAKOAK DEN EZ DAKITEN 32 ORRIKO ZERRENDA DU GOBERNUAK

rrenik Otsoportilloko ekitaldia elkarlanean antolatzeko eredu gogoan.

Iortia kultur guneko gela txikian izanen den ekitaldian Arakilgo, Uhartea Arakilgo, Etxarri Aranazko, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko udalen ordezkariak hartuko dute hitza lehenik. Ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta historialari Josu Chuecak Gursi buruzko hitzaldia emanen du. Bukatzeko, aurretik aipatutako dokumentala emanen da.

Udaletatik adierazi dutenez, gaurko ekitaldiak, "memoriaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioetatik abiatutako oiro-garria izan nahi du, hain urrun ez dagoen iraganean izan ziren eskubideen urraketak berriro egin ez ditzagun". Gaurko ekitaldiarekin udalek Gursen izan ziren sakandarrei eta haien

senideei aitortza egin nahi diete. Aldi berean, ekitaldiak jendeak gertatutakoa ezagut dezan baliatu nahi dute.

Zelaiak azaldu digunez, senideek momentuz ez dute beste zerbait egiteko ideiarik, "baina zeinek daki! Agian gaur elkartu, hizketan hasi eta zerbait sortzen da. Chuecak espedienteak ditu eta nahi badugu, pasako lizkiguke. Agian erakusketa bat? Momentuz gaurkoarekin kitto".

Asko identifikatzeko

Gurseko eremuan 500 nafar izan ziren. Zerrenda badago, baina askotan ez da herria aipatzen. Horregatik, Nafarroako Gobernuak laguntza eskatu die gerran errepublikanoen aldean izan zirenen senideei. www.nafarroa.eus web orriaren historia-memoriari buruzko agenda atalean bi zerrenda jarri ditu. Haietan Gursen izandakoen izenak daude. Besteetan ez. Ahaide baten berri eman nahi dutenek, edo akatsen bat zuzendu nahi dutenek, pazyconvivencia@navarra.es e-postara idatzi edo 848426522 telefono zenbakira hots egin dezakete.

Instititutik lantegietara lan mundua ezagutzeko

Altsasu institutuko DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleak joan den astean hainbat enpresa bisitatu zituzten, Guraso Elkar-teen proposamen eta kontaktuei esker. Bisita horien helburua izan da "lanbide desberdinak ezagutzeko eta prestakuntzaren inguruko informazioa jasotzea eta hausnartzea. Izan ere, ikasleak erabaki garrantzitsuak hartzeko unean daude ibilbide akademikoari dagokionez".

Ikasleak esku zabalik hartu zituzten Altsasuko kooperatiban, Cementos Portlanden, Etxegabeen aterpean, Birziklatze Laborategian, Izarten, Josefina Arregi klinikan, Larrezabal gaztandegian eta Sunsundeguin. "Lantegi eta lan horien oinarrian pertsonak daudela nabarmendu dute guztiek, beti hobetzeko ahaleginean, etengabeko berrikuntza eta formakuntzan".

Lanpostu bakoitzean prestakuntza akademiko eta profesionala behar den azaldu zieten, eta ikasketa ibilbide bakoitzak irekitzen dituen ateak zehaztu zituzten. "Denek azpimarratu dute norbanakoaren interesek eta motibazioak lanean asko eragiten dutela. Eta lanean, ikasketetan bezala, talde lana ezinbestekoa dela adierazi dute". Heldu den ikasturtean esperientzia errepikatuko du institutuak.



Euskarazko ikastaro teknikoetara joateko diru-laguntzak

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi du ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo halakoetan parte hartzen duten sakandarrek diru laguntza eskatzeko aukera izanzen dutela. Beti ere euskaraz badira. Horien barruan sartuko lirake, besteak beste, Udako Euskal Unibertsitatearen eskaintza, Euskal Herriko Unibertsitateak udan antolatzen dituen ikastaroak eta Hik Hasiko udako topaketak. Euskararekin edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak sartzen dira ere.

Ibarreko erakundeak 500 euroko poltsa du eskatzaileen artean banatzeko. Onuradunek ezinen dute 200 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso. Diru-laguntza jasotzeko eskabideak azaroaren 20ra arte aurkez daitezke Mank-en Lakuntzako egoitzan. Informazio gehiago 948 464 867 telefono zenbakian.

HARA ZER DIEN

"Egun bat gehiagorik ez!"

ETXERAT

Etixerat Elkarte bat dator "Egun bat gehiagorik ez!" lelopean Bagoaz kolektiboa garatzen ari den dinamikarekin eta, bereziki, datorren ekainaren 16an, Baionan, 17:00etan Laugatik abiatuta egingo den manifestazioarekin.

Maiatzaren 3an ETAk Genevan adierazitako bukaerarekin eta biharamunean horren babeserako Arnagan izandako nazioarteko ekimenaren ondoren sortutako agertoki berri honetan, aitzakia gehiagorik ezin dugu onartu.

Euskal preso guztientzat eta, zehatzago esanda, jadanik espetxean 28 urte egin dituzten Xistor Haranburu, Jakes Esnal, Ion Kepa eta Unai Parotientzat, justizia justu eta gizatiarra aldarrikatu du Bagoazek, eta Etixerat Elkarteak bat egiten du aldarri horrekin. Hiru lehenak frantziar Estatuan bizi osorako espetxe zigorrrera kondenatuak izan ziren, 15 eta 18 urteko segurtasun epe batekin. Orduz geroztik eskatu dituzten baldintzapeko askatasun guztiak ukatuak izan zaizkie, nahiz eta haien kondena bete eta birgizarteratzeko txosten egokiak dituzten.

Espetxe-politika oraindik iraganean kateatuta dago, eta preso horien baldintzapeko askatasuna ukatzean, epaile eta prokuradoreen erabakien atzean bultzada politikoa dago dudarik gabe. Horregatik, salbuespeneko espetxe politika behingoz bertan behera utzi behar du Frantziako Estatuak.

Hamahiru euskal preso hurbildu dituzte Mont-de-Marsan eta Lannemezango espetxeetara azken hilabeteetan, eta positiboki baloratzen dugu hori, baina premiazko pauso gehiago eman behar dira. Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunok ez dugu gehiago itxaron nahi: giza eskubideen errespetua eta behingoz etorkizuna eraiki ahal izatea exijitzen dugu.

Hori guztiagatik, "Egun bat gehiagorik ez! Ion Kepa, Jakes, Xistor eta Unai etxerat!" aldarrikatu eta bat egiten dugu Bagoaz kolektiboak ekainaren 16rako deitutako ekimenarekin. Etxean eta bizirik nahi ditugu!



Patxi eta Paz. ARTXIBOA

Patxi Uharte Garro da Arakilgo alkate berria

Hilaren 6az gerotik da independentea alkatea eta Paz Gonzalez Saguesi hartu dio lekukoa

ARAKIL

Legegintzaldiko laugarren alkatea du Arakilek: Francisco Javier Uharte Garro. Garagartzaroaren 6an egindako bilkuran Paz Gonzalez Saguesek lekukoa pasa zion bere taldekideari. Gonzalezek alkate ardurak utzi bai, baina zinegotzi izaten segitzen du. Uko egitearen arrazoiak emanez kontzejuei gutuna bidali zion Gonzalezek eta han azaltzen duenez, legegintzaldi hasieran Arakilgo Independentek taldeko kideek alkate ardura partekatzea eta txandakatzea erabaki zuten.

2015eko udal hauteskundeetan independenteek 5 zinegotzi eta EH Bilduk 2 lortu zituzten. Legegintzaldia Ruben Goñi Urroz alkatearekin abiatu zuen Arakilek. Baina Nafarroako Gobernuo Kirolo eta Gazteria Institutuko zuzendari kargua hartu ondoren utzi zuen udala. Gregorio Santesteban Nuñezek hartu zuen lekukoa 2015eko agorrilaren 27an eta 2017ko ilbeltzaren aurreneko astean dimisioa eman zuen. Gonzalezek martxoaren 13an egindako bilkuran hartu zuen alkate-ardura. Talde independenteak bost zinegotzi baldin baditu ere pasa den urtetik zinegotzi kargu bat hutsik dago.

Fiskaltzak helegitea jarri dio Altsasuko auziari

Auzitegi Nazionalako fiskaltzak Altsasuko gertaerak "terrorismo delituak" izan zirela dio, eta helegitea jarri du. Epaitegiak bi eta hamahiru urte arteko espetxe zigorrrak ezarri zituen. Juristen "mendeku gosez" idatzitako epaia dela salatu dute.

ALTSASU

Auzitegi Nazionalako fiskaltzak Altsasuko auziaren epaiari helegitea jarri dio, haren ustez, "terrorismo delituak" izan zirelako 2016ko urriaren 15aren gauetan gertatutakoak. Fiskaltzak 12 eta 62 urte bitarteko espetxe zigorrrak eskatu zituen epaiketean zehar. Epaitegiak ez zuen terrorismo delitua ikusi, baina bi eta hamahiru urte bitarteko kartzela zigorrrak jarri zizkieten Altsasuko gazte auzipetuei "desordena publiko" delituak egotzita.

Auzitegi Nazionalako epaitegiak bi eta hamahiru urte bitarteko espetxe zigorra ezarri zien Altsasuko auziko zortzi auzipetuei, epaitegiak ez zituelako terrorismo delituak ikusi: "ez baita guztiz frogatua geratu ekintzaren helburu terrorista, ezta akusatuek ETArekin duten lotura edo partaidetza". Hortaz, "desordena publikoko" delituenatik ezarri daiteken zigor handiena ezarri zitzaizen.

Auzitegi Nazionalako Fiskaltza ez dago epaiarekin ados, eta bi guardia zibilen eta haien bikotekideen erasoak "terrorismo delitua" dela argudiatuta helegitea aurkeztu zuen asteazkenean, garagarriaren 13an. Fiskaltzak epaiketean mantendu izan duen tesia da terrorismoarena, eta 12 eta 62 urteko espetxe zigorrrak eskatzen zituen horregatik. Beraz, helegitea arrazoi berdinengatik aurkeztu duenez epaiketean eskatutako espetxe zigorrrak eskatzen ditu berriz ere Fiskaltzak.

Fiskaltzak helegitean argudiatu duenez, Altsasun gertatutakoa "ez zen taberna batean izandako borroka bat". Haren ustez Guardia Zibilaren aurkako "planifikatuta eta antolatutako eraso bat izan zen".

Fiskaltzak helegitea aurkeztu aurretik, justizian bi aditu Nafarroako Parlamentuan izan



Gurasoak Justizia eske.

"LEGEAREN INTERPRETAZIO KRUELA EGIN DUTE EPAIAN", JURISTEN ESANETAN

ziren, eta epaia "mendeku gosez" idatzia izan dela esan zuten.

Iñaki Lasagabaster zuzenbidean katedratikoak eta Sonia Ontoria juristak parlamentuko batzordean parte hartu zuten Nafarroako Gobernu babesten duten lau alderdiek eskatuta. Bertan esan zuten "legearen interpretazio krudela" egin dutela Altsasuko auzian.

Mendekua

Parlamentuan egon ziren juristen arabera, susmoetan oinarritutako epaia da Altsasuko auzikoa: "etsaiaren zuzenbide penalaren adibide bat izan da epaia".

"Altsasuko gazteen prozedimenduan giza eskubideak urratu zaizkie", esan zuen hasteko Iñaki Lasagabaster zuzenbide administrazioan katedradunak. Gorroto deli-

turik ezin zaiela egotzi azaldu du katedradunak, izan ere, halakorik autoritate eta poliziengan leporatzerik ez dago legearen arabera.

Sonia Ontoria juristak epaileek epaia egiteko "susmoetan" oinarritu direla esan zuen, "eta ez arrazonamenduetan". Hortaz, Altsasuko auzia etsaiaren zuzenbide penalaren adibide bat da, bere ustez. "Delituak akumulatzen ahalegindu dira zigorrrak ahalik eta gogorrenak izan zitezen", adierazi du Ontoria.

"Epaia krudeltasuna erakutsi du, legearen interpretazio krudela egin dute", azpimarratu zuen Ontoria. Ondorioz, Altsasuko gazteak eta euren senideak "gehiagorik zigorrrak" jasaten ari dira: "kalera irten beharko ziren", amaitu zuen agerraldia Lasagabasterrek.

Geroa Baiko Unai Hualde altsasuarrak "auzia inguratzen duen guztia lotsagarria" izaten ari zela salatu zuen: "neurri-gabea eta irregulartasunez bete".

Altsasuko Gurasoak taldeko kide batzuk izan ziren parlamentuko saioa entzunaz.



Sakanako alkateak, Arakilgoa salbu, agerraldia egin zuten atzo.

Alkateek Iruñeko manifestaziora joateko deia egin dute

Epaia jakin ondoren Nafarroako Parlamentuak egindako adierazpena bere egin dute Sakanako alkateak

SAKANA

Nafarroako Parlamentuak hilaren 4an Altsasuko auziaren epaiaren inguruko erakunde adierazpena onartu zuen. Parlamentariak bezala, alkateak ere ez dira Espainiako Auzitegi Nazionalaren iritzi berekoak. 2016ko lastailaren 15ekoak "gertakari triste eta deitoragarriak" dira, "inoiz gertatu behar ez zutenak". Hori argituta, "ezarritako zigorraren izaera neurrigabea" adierazi dute alkateak. "Neurrigabetasun hori epai-prozesu osoan present egon da, gertakari terrorismo delitu kalifikazioa ematean eta auzitegiak egindako ikerketa, epaiketa eta epaiean". Eta "irmoki" arbuatu dute epaia. Gaineratu dutenez, "behin-behineko espetxeratzek egiteko lege arrazoirik ez dagoela uste dugu". Horregatik, epai-prozesu guztia agortu arte auzipetutako pertsonak aske egotea eskatu dute.

Alkateak jakinarazi dutenez, "orain arteko jarrerari eusten diogu". Hau da, "gertakariak Nafarroako Lurralde auzitegiak ikertu, epaitu eta, hala bazegokion, zigortu behar zituen, eta ez Espainiako Auzitegi Nazionalak". Gorenak "ustezko terrorismo delitua ikusi zuelako epaia Iruñean beharrean Madrilen epaitu zela gogorarazi dute eta, azkenik, epaian terrorismo deliturik ez dela izan nabarmendu dute.

Horrekin batera, alkateak uste dute 76 urteko "guztiz neurrigabe" zigorra ekarri duen epaia

"politika- eta hedabide-presioen eraginez" izan dela. "Presio horrek gertakariak izaera terroristako ustezko delitutzat jotzea eta neurriz gaineko gehiegizko egoera batera iristea eragin du; zigor maila hori ez da normalean ezartzen antzeko egoeratan Estatuko beste toki batzuetan".

Sakanako alkateak ibarreko eta Nafarroako herri guztietan "bake eta elkarbizitzaren alde lan egiteko prestutasun sendoa" adierazi dute eta "altsasuar guztiak bide horretan lanean segitzeko" animatu dituzte. Eta altsasuarrei aitortu diete "2016ko lastailatik orain arte izaten ari diren jarrera zibiko kasuaren trataera mediatikoaren aitzinean".

Horregatik guztiagatik eta "Justizia egon dadin dugun borondatean oinarriturik, herritar guztiei dei egiten diegu Altsasu Gurasoak kolektiboak deituriko manifestazioan parte hartzera.

60 eragile

"Bake, elkarbizitza, giza-eskubide eta kalitate demokratikoen alde lan egiten dugunaren aldetik", Nafarroako gizarte, kultura, sindikalgi eta politikako 50 eragilek agerraldia egin dute Altsasuko Gurasoekin batera eta larunbatean Iruñean egiten den manifestazioan parte hartzera deitu dute. Eragileek "errefusatu" egin dute auzipetuak prebentzio-kartzela aldi egon beharra eta auzipetuak askatzeko eskatu dute. Baita biharko deialdian parte hartzera.

Proporzionaltasuna eta Justizia eskatzera

Altsasu Gurasoak taldetik eskaera hori egitera deitu dituzte herritarrek. Manifestazioa Sadar futbol zelaitik abiatuko da bihar, 17:00etan. Zaragoza etorbidea, San Ignazio eta Nafarroako Gorteak kaleetatik pasa eta Karlos III.a etorbidean bukatuko da

ALTSASU

Altsasuko auziko epaia atera zenean Altsasu Gurasoak izan ziren lehenak esaten "neurrigabea" zela. Adur, Jokin eta Oihani 12 urteko espetxe zigorra ezarri zien, 10ekoa Iñakiri, 9na Aratzi, Jon Anderrri eta Juleni eta, azkenik 2koa Ainarari. Terrorismo deliturik ez zuen ikusi epaimahaiak, baina jarri zitzakeen zigor altuenak jarri zituen. "Horretarako, eraman zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalera, zigor handiak bermatzeko", argudiatu zuten gurasoek.

Gurasoen irakurketa horrekin makina bat pertsonak eta eragilek bat egin dute. Horrela, hainbat erakunde publikok epaia salatuz adierazpenak publiko egin dituzte. Bai hemen bai kanpoan. Hala, Europako Batzordeari auzian esku hartzeko eskatu diote IUko, Ahal Duguko, EAJko, BNGko eta EH Bilduko eurodiputatuek. Haien iritziak, "agerikoa" da altsasuarrei ezarritako zigorra "neurrigabea" dela. Gogorarazi dute "lesio arinak" eragiteagatik 12 urteko espetxe zigorrak jaso dituztela.

Aldi berean, herritarrek makina bat protesta ekitaldi egin dituzte kalean. Esaterako, pasa den ostiralean 200 bat pertsona elkartu ziren Nafarroako Parlamentuaren parean, tartean ziren gobernuari eusten dioten lau indarretako ordezkariak. Altsasu Gurasoak taldeko kideek Espainiako Auzitegi Nazionalak ezarritako "neurrigabe" zigorrak salatu zituzten, Justizia aldarrikatzen zuen pankartaren ondoan. Arrazoi horregatik epaiari helegitea aurkeztuko diotela gaineratu zuten. Behin-behineko espetxeratzeari kritika zuten eta nabarmendu zuten "ez dago ihes egiteko arriskurik. Delitu txikiengatik zigortu zituzten. Logikoena epaia irmoa izan arte zain egotea da".



Ostiraleko Iruñeko kontzentrazioa. Bihar 200 pertsona egongo dira antolakuntzan.

Manifestazioa

Bihar kirol proba bat izanen da Iruñea erdialdean eta, horregatik, manifestazio handien ohiko ibilbidea aldatu behar izan dute gurasoek. Sadar futbol zelaitik abiatuko da eta Karlos III.a etorbidearen eta Amaierko gaztelua kalearen bidegurutzetara bukatuko da.

Apirilaren 14ean bezala, oholtzaren ondoan aniztasun funtzionala duten pertsonendako propio erreserbatutako espazioa egonen da. Aurreko manifestazioan hara iristeko arazoak izan zituzten gurgildun aulkietan zihoazen pertsonak, Gaztelu plaza jendez beteta zegoelako. Oraingoan haiendako propio lasterbidea prestatu diete. Manifestazioa Zaragoza etorbidean utzi eta Galizia etorbideetatik akaberaraino joateko aukera izanen dute.

Bestalde, ziurtatuta dago Lleida, Bartzelona, Tortosa, Vic, Girona, Madril, Miranda de Ebro, A Coruña eta Estatuko beste eta Euskal Herriko hainbat txokotatik autobusak abiatuko direla Iruñerantz. Sakanatik ere, Baikaikutik eta Altsasutik abiatuko dira.

Presoek FIES izateari utzi diote

Jarraipen bereziko presoek fitxategian egoteari utzi diote Altsasuko auziagatik preso dauden zazpiek. Egindako delituaren arabera preso batzuei kontrol eta zaintza handiagoa ezartzen zaie espetxean. Kartzela kartzela barruan moduan ezagutzen da FIESa: patiorako irteerak eta kartzeletan egiten diren jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen du, ziegaren miaketa eta presoek miaketa gehiago dakar eta komunikazioak interbenituak izaten dira. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 17 hilabete pasa eman dute erregimen horrekin. Terrorismoa ez zela esan zuen epaiak eta pasa den astean atera zituzten fitxategitik.



Goian, lasterketa motzeko podiuma, Alberto Martinez eta Nerea Marin buru direla. Alboan, Beñat Katarain lakuntzarra, proba luzeko helmugara iristen. GUAIXE



Etxeko proba, Katarainendako

MENDI LASTERKETAK 15. Lakuntza-Aralar mendi lasterketan 265 korrikalarik hartu zuten parte, 145 proba nagusian, eta Beñat Katarainek etxean irabaztea lortu zuen. Proba laburrean Martinez eta Marin sakandarrak gailendu ziren

Eguraldi sano eta eguzkitsuarekin jokatu zen Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Guztira 265 korrikalarik hartu zuten irteera, horietatik 120 ibilbide laburrean (13,3 km, 640 metroko desnibel +), eta 145 proba nagusian (25 km eta 1.200 m desnibel +). Proba nagusia Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako Euskal Mendi Federazioko Lasterketarako baliagarria zen, eta proba laburra Euskal Mendi Federazioko kadeteen Lasterketarako baliagarria.

265 korrikalariek batera ekin zioten probari. Ibilbide luzeoak Lakuntzatik Guardetxera igo ziren, handik Belokiko lepora, Txorrotxetara eta Unagako putzura igo ondoren, Irumugarrietara iristeko. Handik ekin zioten jaitzierari, Desako bordatik eta Pagomaritik pasa ondoren, Arangunera iritsi eta Lakuntzara jaisteko. Ibilbide motzekoek, aldiz, Guardetxera igo ondoren Mugerdirantz jo beharrean Larzugainera (1.103 m) egin zuten, ondoren Etxaaltxetan ibilbide luzearekin bat egin eta Arangu-

nera iritsi ondoren, Lakuntzara jaisteko. Betiko ibilbidea zen, basolanengatik aldaketaren bat tarteko.

Euria ez, baina lohia. Lohi izugarria zegoen, "txokolatea". Ibilbide laburrean sakandarrak izan ziren nagusi. Alberto Martinez lakuntzarrak hegan egin zuen eta bera izan zen helmugara azkarrena heldu zena (1:05:25), Hugo Busto burlatarraren (1:07:32) eta Jabi Gasanz altsasuarraren (1:07:55) aurretik. Emakumezkoetan, Nerea Marin dorrobarra (1:24:14) gailendu zitzaizen Rita Jimenez agoiztarrari (1:26:19) eta Janire Agirre ataundarrari (1:27:42). Kadeteetan Iñaki Latasa agoiztarrari (1:09:07), helmugan laugarrena, eta Rita Jimenez (1:26:19) gailendu ziren.

**ALBERTO MARTINEZ
LAKUNTZARRA ETA
NEREA MARIN
DORROBARRA NAGUSI
PROBA LABURREAN**

Katarain: "Gogoa nuen herriko proba irabazteko"

Proba nagusian ez zen sorpresarik egon eta Zegama-Aizkorren 41.a sailkatzetik eta aurreko astean Camille-Extreme irabaztetik zetorren herriko semeak, Beñat Katarainek, ez zuen ariorik izan (2:10:28). Hasieratik kolpea jo eta Guardetxerako aurrea hartua zuen Zegaman bizi den lakuntzarrak, eta herriarren txalo-zaparrada lagun zuela sartu zen helmugara. 6 minutu pasa atera zizkion Goierri Garaia taldean taldekide duen Juanjo Igarzabali (2:16:20). Sestao Alpino taldeko Feli Solanasek osatu zuen podiuma (2:17:25). "Gogoa nuen herriko proba irabazteko, desiatzen nengo" aitortu zuen. Aurreko urtetik hona koxka bat gora egin duela galdetuta, "koxka txiki bat igo dut, igual beste batzuk jaitsi duten bezala" erantzun zigun. 29 urte bete berriak ditu lakuntzarrak, oraindik progresioa egiteko nahikoa tarte.

Hurrengo proba Etxarriko Trikutraila izango du, baina

hiru helburu nagusi ditu: "Munduko Kopako proba batean aritzeko asmoa dut, uste dut Barberan izango dela. Uste dut hobeto joango naizela Comapedrosara, Andorrara, uztailearen bukaeran, eta Zegama bezain garrantzitsua den lasterketa jokatzeko naiz Italian, Kima Trofeoa, 52 km eta 4.200 metro desnibela duena, oso teknikoa, beteko nauen lasterketa".

Emakumezkoetan azkeneko lau kilometroetan erabaki zen proba, ordura arte ia elkarrekin aritu baitziren Vanessa Pelaez, Oihana Kortazar eta Lourdes Oartzabal, baina azkeneko Lakuntzako lasterketan estreinatu zen Pelaez andoaindarrak gailendu zen (2:33:28). "Oso polita iruditu zait proba, jaitzieran izugarri gozatu dut. Lohia oso gustuko dut eta gozamen hutsa izan da" zioen Pelaezek.

Haizea Ramirez de Aldak eta Iker Floresek jaso zuten lehen sakandarren saria eta Katarainek lehen lakuntzarrarena. Korrikalari guztiek kamiseta, bisera eta opari poltsa jaso zuten eta txapeldunek 250 euro eta txapela, bigarrenek 100 euro eta hirugarrenek 50 euro. Trofeoaren orde, aurten Zabalarte elkarteko logoaren itxura duen txokolatez egindako tarta jaso zuten opari saritutako guztiek, harrera bikaina izan zuena.

Txingurriye taldearen alde

Lakuntza-Aralar lasterketa hasi eta ordu erdira, Lakuntzan bizi diren jatorri guztien integrazioa lortzea helburu duen aisia eta laguntza taldearen aldeko lasterketa solidarioa jokatu zen. Plazari buelta eman zioten proban animatu ziren korrikalariek.

Sailkapena

Lakuntza-Aralar Mendi lasterketan sakandarrak egindako denborak ondokoak dira:

LUZEA (25 km)

Gizonak

1. Beñat Katarain (Lak):	2:10:38
14. Iker Flores (Alts):	2:35:37
23. Patxi Cano (Alts):	2:39:37
34. Ioseba Iza (Arb):	2:47:07
41. Tomas Guirado (Alts):	2:51:10
42. J. Bereziartu (Alts):	2:51:18
61. Adur Senar (Lak):	3:02:15
67. Iñigo Aldunate (Lak):	3:07:56
80. R. Cantero (Alts):	3:14:44
88. Asier Leitza (Arb):	3:18:50
111. Sergio Goñi (Olaz):	3:43:39
112. Iosu Urriza (Hirib):	3:44:21
114. Unai Razkin (Izur):	3:47:41

Emakumeak

12. Vanessa Pelaez:	2:33:28
91. Haizea Ramirez de Alda (Alts):	3:19:32
100. Ainhoa Beraza (Irañeta):	3:29:22

LABURRA (13 km)

Gizonak

1. A. Martinez (Lak):	1:05:25
3. Jabi Gasanz (Alts):	1:07:55
13. Juan Larrea (Alts):	1:12:46
17. Ibon Arregi (Lak):	1:15:22
21. J.A. Maiza (Uhar):	1:17:09
24. Luis Areta (Lak):	1:17:59
32. Ekain Alegre (Alts):	1:20:48
35. Joseba Galartza (Itur):	1:21:41
36. Asier Urkia (Etx):	1:21:46
38. Andoni Azanza (Alts):	1:22:18
42. Aimar Araña (Etx):	1:23:56
45. Xabier Etxeberria (Etx):	1:24:13
47. Iñaki Arkauz (Lak):	1:24:40
55. Julen Flores (Lak):	1:26:09
57. Fco. Javier Moreno (Alts):	1:26:28
59. Luismi Chaves (Lak):	1:28:21
62. Urko Rekalde (Lak):	1:29:50
80. Ander Orabengoa (Olaz):	1:34:49
81. Mikel Ziria (Lak):	1:35:05

Emakumeak

46. Nerea Marin (Dorrao):	1:24:14
63. Mainer Iragi (Izur):	1:30:29
66. Maria Goikoetxea (Etx):	1:31:39
94. Estibaliz Arkauz (Lak):	1:46:27
95. Uxue Lazkano (Lak):	1:47:29
102. Arantzazu Larrañaga (Uhart):	2:03:59



Aurreko urtean luze egin zen Tritoiena. Aurten laburtu egin dute, 19 km, eta oinez edo korrika egin daiteke.

Tritoiena proba, oinez edo korrika

MENDI LASTERKETAK Beriain mendia ardatz dela antolatutako mendi proba bihar jokatu da, larunbatean, Arbizuko kanpinean. 8:00etan oinezko martxa aterako da eta mendi korrikalariak, aldiz, 9:30ean. Izena ematea zabalik dago

Arbizuko kanpinak eta Dantzaleku Sakana atletismo klubak, Ergoienako Udalararen laguntzarekin eta hainbat babeslerekin, II. Tritoiena mendi lasterketa antolatu dute biharko, ekainaren 16rako, larunbatarekin.

Tritoiena ez da soilik mendi lasterketa izango. "Tritoienak 19,5 kilometro eta 1.050 metroko desnibel positiboko ibilbidea izango du, eta bi modutan egin ahal izango da: oinez, mendi ibilbide edo martxa moduan, edo korrika, mendi lasterketa moduan. Oinezko martxa goizeko 8:00etan aterako da Arbizuko kanpinetik eta mendi korrikalariak, aldiz, 9:30ean. Ibilbidea berdina izanen da: Arbizuko Kanpinetik atera eta Ondatzera iritsi, handik Unanura jaitsi, herrira, Unanutik Beriain igo, Uharteko portutik jaitsi eta Ondatzetik atzera ere Arbizuko kanpinera iritsi. Ibilbidea ederra da, elegantea, airean joateko moduan" esan digute Arbizuko kanpineko arduradunek. Ibilbi-

dearen tracka wikiloc web gunean kontsultatu daiteke.

Aurreko urtean antolatu zuten lehenengoz Tritoiena. Ergoienako hiru herriak eta San Adrian, San Pedro eta San Donato ermitak batzen zituen lasterketa prestatu zuten, 30 km eta 1.800 metroko desnibel positiboarekin, eta 15 km-ko ibilbide laburragoa. Laburrean Ioni Araña (2:13:28) eta Izaro Imaz (2:15:21) gailendu ziren eta luzean Feli Solanas (3:30:41) eta Arantxi de la Fuente (4:50:58). "Distantzia luzeegia zen, proba oso exigentea eta luzea egin zen; hiru eta erdietan sari ematea ezin bukatu geunden. Horregatik, aurten proba laburragoa egitea erabaki dugu" adierazi dute antolatzaileek.

BIHAR, PROBAREN EGUNEAN BERTAN ARBIZUKO KANPINEAN IZENA EMATEKO AUKERA DAGO

Kontua aritzea da

Tritoiengan parte hartzera animatu dute. "Martxakoek 4-5 ordu inguru beharko dituzte eta korrikalariak, aldiz, onenak ordu bat eta hiru ordu laurden inguruan iritsiko dira. Beriain ardatz hartuta, Beriainek duen erakarmen horrekin, lasterketa polita da Tritoiena" gaineratu dute antolatzaileek. Unanuko xenda, Beriain, Uharteko portua, Ondatz... proba ikusteko leku paregabeak dira, mendira egun pasa joateko aitzakia bikaina.

Guztia ongi antolatzen 40 boluntariorik gora arituko dira. Hiru hornidura gune izanen dira, Unanun, Beriainen eta Ondatzen. DYAk proba zainduko du. Sari banaketa 12:45ean hasiko da. Mendi korrikalari guztiek produktu sorta lortuko dute eta txapeldunek txapela eta Unanuko ihoteetako kattola jasoko dute opari, Joseba Ezkurdiaren eskutik. Martxistek, korrikalariak eta boluntarioek auzate ederra izanen dute zain.



Aurreko asteko finalerdietako partida bat. ALTSASUKO GAZTETXEA

Altsasuko pilota goxuan, txapelak janzteko tenorea

PILOTA Altsasuko Pilota Goxua Txapelketako finalak jokatu dira igandean, 16:30ean

Altsasuko gaztetxeak eta Pilotajauku pilota klubak antolatutako IV. Pilota Goxua txapelketan ikusmina handia da, igandean jakingo baitira nortzuk diren txapeldunak.

Aipatu txapelketan guztira 35 bikote lehiatu dira: 1. eta 2. mailan zortzina bikote, 3. mailan 14 bikote eta aurten lehen aldiz antolatu duten emakumezkoen mailan 5 bikote. Ligaxka bikainaren ondoren, aurreko asteburuan finalerdiak jokatu ziren eta horrela, igandean jokatu diren finalak erabakita geratu ziren. Finalak igandean jokatu dira, 16:30ean, Burunda pilotalekuan. Aurreko partidetan bezala, antolatzaileek giro bikaina espero dute.

Finalistek Altsasukoak Aske kamisetekin jokatu dute finala. Eta finalak jokatu bitartean mokadutxoren bat hartzeko aukera izango da frontoian.

Finalak

Etzi, 16:30ean, Burundan

Finaleko partidak

- **3. maila:** Pleito-Ondatz / Ilegi-Ilegi
- **2. maila:** Jauregi-Barandalla / Gelbentzu-Gelbentzu
- **Neskak:** Igoa-Alonso / Aldaregia-Iturain
- **1. maila:** M. Mazkarian-Alustiza / Lopez de Zubiria-Garziandia

Finalerdietako emaitzak

- **1. maila:** Alustiza-Mazkarian 15 / Ansa-Senar 9 / L. Zubiria-Garziandia 15 / Urteaga-Lauzirika 9
- **2. maila:** Gelbentzutarrak 15 / Martinez-Flores 10 / Lizarraga-Olmos 8 / Jauregi-Barandalla 15
- **3. maila:** Ilegi anaiak 15 / Iriarte-Ollo 10 / Ortigosa-Gonzalez 2 / Pleito-Ondatz 15

ESKALADA Etxarrin rokodromo berria egiten ari dira

Etxarri Aranatzek rokodromo berria izanen du. Maisu-maistren etxean egonen da, eta hura aurrera eramateko taldea sortu da. Horrela, aipatu taldeak interesatu guztiei bilera batera deitu die gaur, ostiralean, 19:00etan, Maisu-maistren etxean, *Etxarriko rokodromo berrian parte hartu nahi duzu?* lelopean egin duen gonbitarekin.

ARETO FUTBOLA Juninho eta Pedrinho, Osasuna Magnara

Osasuna Magna Xotak Brasilgo 20 urtez azpiko Corinthians taldearekin akordioa sinatu du eta bertako bi jokalaririk dituzte: "Juninho" eta "Pedrinho". Juninhok bi urterako sinatu du eta beste bi aukerakoak ditu eta oso pozik dagoela azaldu du. Pedrinho hurrengo bi urtetan Naturpellet Segovian ariko da, Osasuna Magnak utzita.



IRATI IGOA

Nafarroako Kopa Mulierrentzat

FUTBOLA Emakumezkoen Nafarroako Kopako finalean Mulier taldeak 2 eta 1 irabazi zion Berriozarri. Irati Igoa etxarriarrak sartu zituen Mulierren bi golak. Ane Cantero lesionatuta dago eta ezin izan zuen jokatu, baina Aroa Cerezok eta Irati Igoak partida guztia jokatu zuten, eta Maitane Vilariñok azken 20 minutuak. Kopa eskutan, pozik daude sakandarrak.



ECUBITT PERFORMANCE

Flores azkarrena Tenerifen

AUTOMOBILISMOA Asteburuan Isorako Guiara igoera jokatu zen Tenerifen, Espainiako Mendi Txapelketarako baliagarria zen 4. proba. 2. kategorian Garikoitz Floresek irabazi zuen (BRC B49), 3:05.517 denborarekin. Txapelketako sailkapen orokorrean lider jarraitzen du lakuntzarrak (92 puntu), Erik eta Afonso pilotuei 8 puntu aterata.

Espainiako Kadeteen Txapelketa, Irurtzunen

ARETO FUTBOLA Xota Osasunak, Zierbenak, Mioñok, Cios Vigok eta Pirineos taldeek Espainiako Kadete mailako Aretoko Futboleko Txapelketa jokatuko dute ostiraletik igandera Irurtzunen. Txapelketa ligaxkan jokatu da, 5 jardunalditan

Irurtzango kiroldegiak puntako areto futbol txapelketa hartuko du asteburuan: Espainiako Kadete mailako Aretoko Futboleko Txapelketa. Bost taldek hartuko dute parte Txapelketa honetan: Xota Osasunak, Zierbenak, Mioñok (Cantabria), Cios Vigok (Galiza) eta Pirineosek (Aragoi). Ligaxka sisteman jokatu da txapelketa, eta, guztira 5 jardunaldi jokatu dira.

Bost jardunaldi

Ostiral goizean lehen jardunaldia jokatu da, goizeko 10:00etan hasita. Bi partida jokatu dira, eta jardunaldi horretan Xota Osasunak atsedena izango du.

Bigarren jardunaldia, ostira-lean hasiko da, arratsaldeko 18:00etan, Cios Vigok eta Xota Osasunak jokatu duten partidarekin. Hirugarren jardunaldia larunbat goizean hasiko da, 10:00etan. Xota Osasunak 12:00etan jokatu du, Zierbenaren kontra. Larunbat arra-



Xota Osasuna taldeak Espainiako Kadeteen Txapelketan parte hartuko du. XOTA

tsaldean 4. jardunaldiaren txanda izanen da eta Xota Osasunak 20:00etan jokatu du, Pirineos taldearen kontra. Eta igandean 5. eta azken jarduna jokatu da. Xota Osasunak 12:00etan jokatu du, Mioñoren kontra.

Irabazlea, azken fasea

Irurtzunen jokatu den Espainiako Kadete mailako Aretoko Futboleko ligaxka irabazten duen taldea izango da torneoko txapeladuna, eta klubaren arteko azken fasean jokatu du.

Iratxo Botxa Txapelketa igandean erabakiko da

BOTXA Ostiraletan txapelketako finalerdiak jokatu dira eta igandean, 19:30etik aurrera, final handiak

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzango Iratxo elkartearen zaletasun handia duena. Aipatu elkartearen Irurtzango Trinitate festetan hasi zen jokatzen Iratxo Botxa Txapelketa. Sei hirukote lehiatzen aritu dira ordutik, ligaxkan.

Ligaxka bukatuta, Edurne-Txutxurrin-Tere hirukotea lehen postuan sailkatu da, Tximeleta, Desesperados eta AHTrick ez taldeen aurretik. Horrela, lau talde hauek jokatu dituzte asteburuan jokatu diren finalerdiak eta finalak.

Ostiraletan, 19:00etatik aurrera finalerdiak jokatu dira Iratxo elkartearen botxategian. Lehen talde sailkatua hirugarren sailkatuaren kontra ariko da eta bigarren sailkatua laugarren sailkatuaren kontra. Igandean, 19:30etik aurrera, txapelketako final handiak egondu dira jokoan, eta bukaeran sari ematea izanen da, Iratxo elkartearen bertan.

Iratxo Botxa Txapelketa des-peditzerakoan udako kanpainari ekingo diote Iratxo elkartearen haurren ikastaroa barne.

Asteburukoak


Iratxo elkartearen botxategian Iratxo Botxa Txapelketako finalerdiak eta finalak jokatu dira asteburuan

Finalerdiak, ostiraletan

- 19:00 Edurne-Txutxurrin-Tere / Desesperados
- 20:15 Tximeleta / AHTrick ez

Finalak, igandean

- 19:30 3. eta 4. postuak
- 20:30 Final handia





ASPE

Sakandarrak Sanfermin Torneoan

PILOTA Asteartean aurkeztu zuten Sanferminetako Binakako Torneoa. Sei bikote lehiatuko dira guztira. A multzoan ondoko bikoak daude: Olaizola II.a-Imaz, Irribarria-Zabaleta eta Arteaga-Albisu. Eta B mailan Ezkurdia-Rezusta, Urrutikoetxea-Larunbe eta Altuna III.a-Martija. Ezkurdiak eta Rezustak iazko txapela defendatuko dute.



UTZITAKOA

Soto, Farinato Race-n txapelduna

KIROLDEGIA Asteburuan jokatu zen, Iruñeko Zitudadelan, Farinato Race txapelketa. 5,5 kilometroko proba da, baina atletek mota guztietako oztupo eta trabak gaingitu behar izan zituzten bidean. Parte-hartzea ikusgarria da. Esaterako, proba herrikoian 1.266 atleta lehiatu ziren eta Oihan Soto Satrustegi lakuntzarrak irabazi zuen (39:11).



Altsasuko Tenis Rubor Txapelketan aritutakoek talde argazkia egin zuten sari emate ekitaldian. . TENIS RUBOR

Etorkizuneko tenistek denboraldiari agur

TENISA Altsasuko Tenis Rubor Txapelketak baditu txapeldunak. Sari ematea maiatzaren 30ean egin zuten eta eskolako tenistek auzate ederrarekin despeditu zuten aurtengo denboraldia

Altsasuko Tenis Rubor eskolan 60 ikasle trebatu dira aurten tenisean, Iban Chaparro, Iratxe Soriano eta Ricardo Cantero monitoreekin. Horietatik 52 ikaslek 16 urte baino gutxiago dituzte eta 8 ikaslek 16 urte baino gehiago. Ikasturtea despeditu berri da, eta balorazioa oso ona egin dute Tenis Rubor eskolakoek. "Oso giro ona dugu, oso gogotsu etortzen dira klase-ara eta hainbat ekitaldi antolatzen ditugu" adierazi digute tenis eskolatik. Horren isla, otsailean, inauteriak gaia hartuta, "Zure pilota mozarrotu" lehiaketa jarri zuten martxan, eta tenis pilotak mozarrotu zituzten ikasleek, emaitza benetan ikusgarriak lortuaz. Eta hobekuntza taldekoek irteerak egin zituzten.

Maiatzan jokatu zen txapelketa Baina antolatutakoaren artean Tenis Rubor Txapelketa da, akaso, kuttunena tenis ikasleendako. Maiatzaren 12an, 13an, 19an eta 20an jokatu zen txapelketa

eta maiatzaren 30ean izan zen sari ematea. Horrekin batera, eta ikasturtea despeditzeko, oroigarria edo oparitxoak jaso zuten eta auzate ederraz gozatu zuten.

Gizonak

Horrela, gizonetakoetan, benjaminetako final oso estuan, Aimar Pache izan zen txapelduna eta Urko Amillano txapeldunordea (4-2 eta 2-3). Mutilen 1 mailako finalean final oso lehiatua eskaini zuten aurten taldean hasi den Oihan Unamunok eta Aitor Augustok. Lehen seta Aitorrek irabazi zuen, bigarrena Oihanek, eta berdinketa hasteko setean biak bikain ibili ziren baina Oihanek gailentzea lortu zuen

TENIS RUBOR TXAPELKETAKO FINALETAKO PARTIDAK OSO ESTUAK IZAN ZIREN, BIKAINAK

(4-6, 7-5 eta 7-5). Eta mutilen 2. mailan Xabi Bengoetxea gailendu zitzaion Jon Plissoneauri, partida bikainean. Lehen setean Jonek ez zuen alde zuen egoera aprobeztatu eta Xabik irabazi zuen lehen seta, eta bigarrenetan atzera ere Xabi gailendu zen, nahiz eta Jonek ez zuen sekula partida galdutzat eman (6-4 eta 6-3).

Emakumeak

Emakumezkoetan, nesken 1. mailan Leire Larrea dugu txapelduna, Olatz Galartzari 6-1 eta 6-0 irabazi eta gero. Dena den, meritu handia du Galartzak, bere lehen urtean finalera sailkatu delako. Eta nesken 2. mailan lehia oso estu eta borrokatua eskaini zuten Nerea Verak eta Nerea Arellanok. Lehen seta Nerea Arellanok lortu zuen, bigarrena, aldiz, Nerea Verak, eta, hortaz, hirugarren setean erabaki zen guztia. Nerea Vera finago ibili zen eta bera dugu, hortaz, txapelduna.

Bihar II. Lakuntzako Emakumeen Trofeoa

TXIRRINDULARITZA Bihar, larunbatean, 15:30ean, Lakuntzako plazatik abiatuko da emakumezkoen proba. Puntako txirrindulariak lehiatuko dira bertan, tartean sakandarrak

Lakuntzak emakumezkoen txirrindularitza proba hartuko du bigarren bezala, Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuta. Aurreko urtean bezala, kadete eta juniorrez gain, elite mailakoak ere lanean ariko dira.

Lasterketa berezia izango da, mugimendu asko duena. Izan ere, 15:30ean kadete mailako txirrindulariak abiatuko dira, 37 km-ko ibilbide bat osatzeko. Bestalde, elite mailako txirrindulariek 16:45ean ekingo diote bere lasterketari, 65 km-ko proba osatzeko. Eta junior mailakoak aurrekoen lasterketara gehituko dira 12,5 kilometroan, 54 km-ko lasterketa egiteko.



Txirrindulariek primerako ikuskizuna eskainiko dute.

Aralar klubak Lakuntza oinarri hartuta bi zirkuitu prestatu ditu. Bata, Lakuntza eta Arruazu artean, 6,3 km-koa, eta, bestea, Lakuntza, Arbizu, Lizarrango eta Etxarri artean, 11,3 km-koa. Zirkuitu horiek erabiliz osatuko da proba. "Helburua txirrindulariak Lakuntzatik sarritan pasatzea da, herrian giro polita sortzeko" adierazi dute Aralar klubetik.

Sakandarrak

Oraindik ez dago zehazterik zenbat txirrindularik hartuko dute parte Lakuntzako proban, baina tartean sakandarrak egongo dira. Egun, kadete mailan Leire Maiza etxarriarra eta Maria Beraza dabilza, biak Ermitagaña Nafarroa taldean. Junior mailan, Joana Irastorza etxarriarrak CAF Turnkey Engineering Women taldean jarraitzen du, Bakarne Gonzalezek DC Road taldean eta Maialen Aramendia junior iturmendiarrak Sopela Women's team taldearekin debutatu du. Ez dakigu guztiek bihar Lakuntzan aritzeko asmoa duten, baina hala bada, zortetik onena opa diegu.

Igor Arrieta azkarrena Lizarrako lasterketan

TXIRRINDULARITZA Kadeteen bigarren urtekoen mailan gailendu zen Uharteko Arakilgo txirrindularia

Larunbatean Lizarrak kadeteen VI. Electricidad Kesma Trofeoa hartu zuen, Gaztetxoak Torneoako 3. proba puntuagarria.

Bigarren urtekoetan Arrieta bakarrik iritsi zen

Bigarren urteko kadeteek 56 km-ko lasterketa osatu behar izan zuten eta Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Igor Arrietak erakustaldi ederra egin zuen: ihes egin zuen eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:23:06). 45 segundora sartu ziren Asier Pozo eta Unai Cueva. Laugarrena bere taldekide Aitor Alberdi izan zen, seigarrena Burundako Quesos Albenizko Unai Aznar, 38.a Iker Mintegi (Q.A.) eta 58.a Mikel Lizasoain (I.I.). Intersport Irabia taldeko sailkapenean hirugarrena sailkatu zen.

Lehen urtekoetan, esprintean erabaki zen

Lehen urteko kadeteen proban 41 km-ko proba osatu zuten txirrindulariek. Kasu honetan esprintean erabaki zen proba eta Bazpi taldeko Beñat Carbayeda (1:01:36) gailendu zen 24 txirrindulariz osatutako tropeltxoan. Sergio Lopez (Q.A.) laugarrena sartu zen, Hugo Aznar (Q.A.) seigarrena, Martzel Etxeberria (I.I.) zazpigarrena eta Antonio Gonzalez (Q.A.) hogeiagarrena. Bestalde, Oihan Etxeberria (Q.A.) 33. postuan sartu zen, Jon Chamorro (Q.A.) 58.ean eta Jon Erdozia (I.I.) 83.a. Aipatzekoa da Hugo Aznarrek mendiko saria irabazi zuela.

Juniorrak Zumaian

Larunbatean junior tropelak lasterketa izan zuen Zumaian, Joxe Mari Korta Memoriala. Xabier Berasategik irabazi zuen (2:21:21) eta Burunda klubeko Quesos Burundako Ailetz Lasa 22.a sartu zen, 2:01era.

507 biker bildu ziren Altsasu BTT Zeharkaldian

MENDI TXIRRINDULARITZA / BTT 23. Altsasu BTT Zeharkaldiko ibilbide luzean 345 txirrindulari aritu ziren eta 162 ibilbide laburrean. Ez zen inolako ezbeharrik izan eta beste behin mendi txirrindularitzaren festa ederra izan zen igandekoa

Eguzkiak presente egon nahi izan zuen Barranka Txirrindulari Taldeak hainbat babeslerekin antolatutako 23. Altsasu BTT Zeharkaldian. Horrela, goizeko 9:00etan 507 biker abiatu ziren Altsasuko Foru plazatik, Altsasuko zeharkaldian parte hartzeko. Mendi txirrindulariek bi aukera zituzten: proba luzea (52 km) eta proba laburra (39 km).

Gehienek, 345 txirrindularik, proba luzea hautatu zuten. Guztiek batera atera ziren Olazti-rantz. Auntzetxeko bidegurutzeraino heldu eta gero, Urdalur urtegiara joan ziren. Urdalurretik gora, ezkerretatik, Beunderraino iritsi ziren eta atzera ere



Eguraldia lagun, gustura ibili ziren bikerrak.

urtegiaraino jaitsi ziren, handik Irumuga bidegurutzeraino heldzeko. Bertatik urtegiarantz egin zuten, eta autobidearen azpitik Sorozarretara heldu ziren, "toboganen bidea" hartu, Leku-Ona jatetxera iritsi eta Amillanoko tuneletik autobia gurutzatu eta Santa Lucia Sakanetik San Pedroraino iristeko. Azkenik, Urdiango baserrietatik barna Altsasuko Foru plazako helmugaraino heldu ziren guztiak. Ibilbide laburrekoen bidea oso antzekoa zen baina ibilbide luzeari hainbat laburbide egin zizkioten, distantzia gutxitzeko.

Bukaeran opari ederra jaso zuten bikerrek: kamiseta, Katealde pateak, Arbizu txistorra eta Lacturale esnea. Ibilbidea behar bezala osatzeko 6 hornidura guztiak zeuden eta guztia antolatzeko 70 pertsona inguru aritu ziren lanean. Barranka Txirrindularitza Taldeko presidente Felipe Troyano kontentua zegoen dena behar bezala atera zelako eta ez zelako inolako arazorik egon. Azkenaldi honetan 500-600 parte-hartzaile inguru aritzen dira Altsasuko BTT Zeharkaldian.



Tarteka hegan egiteko aukera izan zuten, Aralartik eta Eulartetik. BAIZA

Sakana Parapente Egunean hegan egitea lortu zuten

PARAPENTEA 120 parapentelari inguruk hartu zuten parte Sakana Parapente Egunean

Baiza Parapente Taldekoek mimo handiz prestatu zuten Sakana Parapente Eguna, Iturmendin. Eguraldiak, ordea, ez zuen asko lagundu. Baina bildutakoek ez zuten etsi eta Santa Marinaran ez, baina Eulartetik eta San Migeletik hegan egitea lortu zuten.

Izan ere, larunbaterako aurreikuspenak ez ziren oso onak, baina hala ere 120 pertsonak eman zuten izena Sakana Parapente Egunean. Estalia eta hego ukituko haizearekin esnatu zen eguna. Hortaz, Santa Marinatik aritzea iparraldeko aireratzeara du- ia ezinezkoa zen. Horrela, Eulatera gerturatzeko erabakia hartu zuten, bertan hegoaldeko aireratzaren delako. Ateruneetan euren ametsa gauzatu eta zenbait hegaldi egitea lortu zuten bertan bildutakoek. Inor hegan egiteko gogoz ez gelditzeko, biplaza hegaldiak eskaini ziren, hasi berriek edo parapentea ezagutzen

ez dutenek hegan egitearen sententzioa probatzeko. Eta arrakastatsuak izan ziren, oso.

Bitartean, Iturmendin, non-stop edo gelditzen ez den hamaike-takoa prestatzen hasi ziren, arratsalderaino luzatu zena: haragia plantxan, fruta, barazki-jaleendako jakiak... Arratsaldean, euriak tregua eskaini zuenez, Aralarko San Migelera joatea erabaki zuten parapentelariak, eta gustura aritu ziren. Banaka, biplazan... hegan egitea, hori zen kontua. Ondoren, Iturmendin bildu ziren, Atzapar Rock gazte sakandarren kontzertuarekin gozatzera. Afari oso animatuaren ondoren, opari zozketa egin zen. Denetarik zozketa egin zen, bertako produktuak, kamisetak, aulkiak, motxilak, parapenterako bariometro bat... Eta festa giroari ginda jartzeko, Zaparra eta Belack taldeen kontzertua izan zen.

Ataun: Juango bigarrena

TXIRRINDULARITZA Igandean Euskaldun Trofeorako baliagarria zen proba jokatu zen Ataunen. Asier Etxeberriak (Ampo Goierrri TB) irabazi zuen (3:16:25), eta hiru segundora Odei Juango lakuntzarra sartu zen, aurreko urtean Rural Kutxa-Seguros RGA taldean ariztetik aurten Telcom Ederland Frenkit taldera pasa den txirrindularia.



TEL.COM EDERLAND FRENKIT



Sakanako errugbi campusean trebatzen dabiltzan gazteak, lau monitoreekin. UTZITAKOIA

Sakandarrak errugbian trebatzen

ERRUGBIA Sakanako Mankomunitateak sustatutako errugbi campusa astelehenean hasi zen eta ostiralean despedituko da. 8 eta 13 urte bitarteko 43 sakandar ari dira trebatzen, lau monitoreekin

Astelehenean hasi zen eta ostiralean despedituko da Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Futbol Campusa. 8 urtetik 13 urte bitarteko 43 neska-mutikok eman dute izena eta lau monitoreekin ari dira errugbiaren munduan trebatzen, Etxarri Aranazko San Donato futbol zelaietan: Eibar taldeko jokalaria den Gaizka Ocaña urdiaindarrak, Gorka Garate errugbi jokalaria eta entrenatzailea, La Unica errugbi taldeko jokalaria Leire Rodriguez eta Durango taldeko jokalaria Lide Huizi etxarriarra. Arratsaldero, 15:00etatik 19:00etara, errugbiaren nondik norakoak barneratzen saiatuko dira gure gazteak.

Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak adierazi digunez, gustura dabiltza campusean parte hartzen ari direnak. Asteazkenean Etxarri Aranatzeko San Kiriko ospatzen zuten, Etxarriko plazan ginkana egin zuten eta errugbiari lotutako jolasak

egin zituzten. Bestalde, beste jokalaria batzuren bisitak jasoko dituzte. Tartean, ostiralean, 17:00etan, La Unica taldeko nesken bisita izanen dute.

Sakanako errugbi campusa sustatzeko interesa dago eta interes hori bere egin du Nafarroako Errugbi Federazioak. Errugbi campusa sustatzeko, esaterako, Sakanako ikastetxeetara Leire Rodriguez Oñatibia eta Maika Iraizoz errugbi jokalaria bidali zituen federazioak, gure ikasleekin errugbiaren baloreez eta jokoaz aritzeko. Izan ere, errugbiak balore oso garrantzitsuak sustatzen ditu, errespetuaren balorea, esaterako. Horregatik oso kirol interesgarria da Man-

komunitatearendako eta errugbi campusa sustatu du.

Partaideak

Errugbi campusean ondoko neska-mutikak ari dira parte hartzen: Adrian Martinez, Luka Martinez, Tasio Garcia, Beñat Berdote, Aritz Oiarbide, Urko Oiarbide, Eñaut Oiarbide, Egoi Marin, Ekhi Barandiarana, Beñat Gomez, Endika Erize, Eki Errazkin, Amets Aristizabal, Amaiur Martinez de Ordoñana, Izai Martinez de Ordoñana, Jon Ducar, Telmo Garmendia, Iraia Moro, Lur Sasiain, Artzai Karasatorre, Manex Zubeldia Julene Iraurgi, Oihan Mariñelarena, Jon Mariñelarena, Adei Arza, Ioritz Arratibel, Ametz Lizaur, Eneko Irañeta, Irati Loiarde, Maialen Larraza, June Ormazabal, Lexuri Lazkoz, Zugaitz Bumiller, Ekain Berandalla, Oinatz Carreño, Enaitz Carreño, Javier Lanchares, Mauro Lanchares, Harriet Artieda, Aner Artieda, Izaro Diez eta Jokin Campos.

**GAIZKA OCAÑA,
GORKA GARATE, LEIRE
RODRIGUEZ ETA LIDE
HUIZI DIRA
MONITOREAK**

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 15

LAKUNTZA Gitarra emanaldia.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU GURS-eko eremuan egon ziren **Sakanako herritarren oroimenez**. Josu Chuecaren hitzaldia eta **Oroimena ahazturik** dokumentalaren proiektzioa.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Triman ez itxi. Konponbidea orain! manifestazioa. **LABek** deituta.
19:00etan, Foru plazan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Kaos Urbano taldearen kontzertua.
22:30ean, Gaztetxean.

LARUNBATA 16

ALTSASU Altsasu-Otzaurte-Lizarraga-Lizarraga-Altsasu 140 km-ko ibilbidea egingen dute **Barranka Txirrindulari Taldeko** errepide atalekoek.
08:00etan, San Juan plazatik.

ALTSASU Emigrantearen eguna.
10:00etatik aurrera, La Encina elkartearen.

ARBIZU Euskal herriko neska* gazteen topaketa.
10:30etik aurrera, plazan.

ZIORDI Mindfulness tailerra.
12:00etatik 14:00ak arte, Amaraunan.

LAKUNTZA Nesken txirrindulari proba.
15:30ean, plazatik.

IGANDEA 17

ALTSASU La Kartxelara irteera. Altsasuko Mendigoizaleak
6:45ean, egoitzatik.

UHARTE ARAKIL Uharte-Goldaraz ibilbidea egingen du **Aralar Mendi Taldeak**.
8:30ean, elkarteko egoitzatik.

ALTSASU XII. Sierra de la Comarca

50 km-ko ibilbidea egingen dute **Barrankako Mendi atalekoek**.
7:30ean, abiatuko dira egoitzatik.

LAKUNTZA Aralar eguna.
12:00etatik aurrera, Guardetxen.

ALTSASU *Mexico lindo y querida Hispanoamerica* Trasteando taldearen kontzertua.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 18

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.
19:30ean, udaletxe parean.

ASTEARTEA 19

LAKUNTZA Musika eskolako kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 21

IRURTZUN *Análisis histórico de la Lucha de clases en Euskal Herria* hitzaldia.
18:00etan, kultur etxean.



ALTSASU Ingurumena Altsasuko institutuan. Garagarrilaren 21a arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur gunean.



IRURTZUN Marian Murilloren akuarelen erakusketa. Garagarrilaren 11tik garilaren 13ra, Pikuxar euskal txokoa.

ZORION AGURRAK



Mairu
Zorionak poxpolito!
Gue etxeko ttikinek
danekos urtiat!
Musu haundi bet!



Jaso Guaixe astekaria astero zure etxean. Harpidetu zaitez!
guaixe.eus/harpidetza

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ERRENTAN EMAN

Ileapaindegia Olaztin. Alokatu edo eskualdatzen da. Elena 650587669

LANA I NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Urdiaingo udalak aisialdirako begiralea behar du. Ezinbestekoak EGA (edo balioakidea) eta monitore titulua. Bestelako ikasketak ere kontuan hartuko dira (magisteritza ikasketak etab.). CV-ak udaletxean jasoko dira

Etxarri Aranazko jubilatuen elkarteak langile bat behar du: Elkarteko taberna eramateko. Interesatuak deitu 650 669 397 – 660 340 336

OHARRAK

Etxarri Aranazko kontsumitzaileen bulegoa. Garilak 2 eta irailak 3. Iratxe elkarteak kide batek atzartzen du. Aldez aurretik udaletxean izena eman beharra dago.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biitokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otdiaki ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontue-tan sar daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeek eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguiagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguiagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kubxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzazten: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es

edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenaren parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

OPATUTAKOAK I GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkiaburra.es

JAIOTZAK

- **Tamialt Ballouk Hsikkou,** ekainaren 7an Altsasun
- **Irene Ganuza Baroja,** ekainaren 8an Olaztin
- **Xuhare Rivero Escudero,** ekainaren 9an Altsasun
- **Maren Reparaz Millan,** ekainaren 11n Arbizun

HERIOTZAK

- **Rafael Zubillaga Egurza,** ekainaren 6an Lakuntzan
- **Jesusa Irigoien Galartza,** ekainaren 6an Altsasun
- **Jose Iribarren Huarte,** ekainaren 12an Uharteko Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eu
www.guaixe.eu/iragarkiak




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 15




Ostiralean giro eguzkitsua izango dugu eta temperatura igo egingo da. Zerua hodei gutxirekin egongo da ia egun osoan.

Larunbata, 16




Zerua estalia izango da goiz guztian zehar, baina arratsaldean arratsalde partean ostarteak handitzen joanen dira.

Igandea, 17



Euri zaparradaren bat izan dezakegu goizean, baina batez ere ateri eutsiko dio egunari. Temperatura epelak izango ditugu.

Astelehena, 18



Eguzkiaren presentzia izango dugu. Temperaturak ez dira gehiegi igoko, baina eguzkia ateratzerakoan, bero sententzia areagotuko da.

ESKELA



Hermilio Presa Menaza



Bakartxo Presa Larburu irakaslearen aita

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle, ikasle eta langileak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eu

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa. 948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Trasteando taldeak igandean emanen du kontzertua lortian.

Trasteandok Hispanoamerikatik bidaia musikatu egingen du

Herrialde bakoitzetik abesti bat egingen du musika taldeak igandean, lortia kultur gunean, 19:30ean

ALTSASU

Hispanoamerikako "herrialdez herrialdeko" musika ibilaldia egingen du Trasteando taldeak igandean, garagarrilaren 17an, Iortia kultur gunean. Hortaz, herrialde bakoitzeko estilo esanguratsuenak joko ditu musika taldeak: ballenato, sanba, cueca, andeetako dantzak, bals kreolek, joropak... Hispanoamerikako musikaren "lagin" bat ikusteko kontzertu interesgarria izanen da.

Peru, Ekuador, Venezuela, Paraguai, Uruguai, Argentina, Kuba, Nikaragua eta abarreko herrialdeetako musika estiloe-tatik ibilbidea egingen du Trasteando taldeak, Mexikoko jalisko eta rantxerekin amaitzeko, Kruz Mari Martinez Larreak Trasteandoko kideak azaldu duenez. "Errepertorio handia dugu hemengo eta hango musikarekin, eta oraingoan hispanoamerikako musikari omenaldia egin nahi izan diogu". Hortaz, herrialde bakoitzetik musika generoko kanta bat egingen dute.

Hispanoamerikako musika "aberatsa eta askotarikoa" dela dio taldeak. Hala ere, Trasteando taldeak Iortia kultur gunean egingen duen emanaldian interpretatuko dituzten abesti gehienak "ezagunak" dira: "gurean oso errotutako musika da". Igandean interpretatuko dituzten hainbat kanta ohiko errepertorioan izaten dituztela esan du Martinezek, bals kreolek, esaterako; baina, beste batzuk, be-

riagoak izanen dira. "Nicaragua, Uruguay edo Paraguayko musika ez da hain ezaguna".

Gainera, kultur "mestizaje interesantean" ondorioz sortutako musika da Hispanoamerikakoa. "Alde batetik kolonizatzaileek eraman zuten musika, bertakoen musika eta Afrikako esklaboek egiten zuten musika uztartuz sortu ziren musika estiloak". Amerikarrek txirula bezalako haizezko instrumentuak jotzen zituzten, kolonizatzaileek harizko instrumentuak eraman zituzten, gitarra eta laute europarra kasu, eta Afrikako esklaboek perkusioa jotzen zuten. "Mestizaje oso polita da".

Emanaldiak

Trasteando taldea osatzen duten hamabi abeslariekin batera bi tronpeta jole, tronba jole bat eta akordeoilari bat ariko dira igandeko kontzertuan. Trasteando taldeak larunbatean egin behar zuen emanaldia Iortia kultur gunean, baina Altsasu Gurasoak taldeak biharko antolatutako manifestazioarekin bat egiten zuenez kontzertuaren eguna aldatzea erabaki zuten.

Trasteando taldeak uztailaren 7an Iruñeko Bosquecilloan kontzertua eskainiko du, sanferminetan. Gainera, Aita Barandian eta Josefina Arregi klinike-tan egonen dira kantatzen. "Haiei gustatzen zaie, elkarrekin abesten dugu, gazte garaian abesten zituzten abestiak jotzen ditugu, gehien bat", Martinezek azaldu duenez.



Musika eskolako ikasleak. UTZITAKOIA

Lakuntzako musika eskolaren ikasturte amaierako emanaldia

Ikasturte amaierako emanaldia egingen dute Lakuntzako musika eskolako ikasleek asteartean, garagarrilaren 19an, 19:30ean herriko kultur etxean. Aste honetan zehar ikasleek tronpeta, gitarra eta piano emanaldiak egin dituzte ikasturtean zehar ikasitakoa publikoaren aurrean erakutsiz. Asteartean elkarrekin arituko dira eskolako musikari gazteak.



BAZTERRETIK

JOSE LUIS ASENSIO

Soberan dauden emakumeak

Duela zenbait hilabete Javier Telletxea nor zen interneten ikusi nuen. Javierzo (edo ta Javiertzo) bezala sinatzen ditu bere bideoak eta Txinako kultura eta eguneroko biziari buruz hitz egiten du. Beran jaiotako nafar honek bere ikasketak Txinan bukatu zituen eta geroztik han dabil bueltak ematen bere neska txinatarrekin.

Txina barrutik ezagutzen duela esan daiteke, eta bertako bizitzeko modua, jendea eta izaerak blog batean, artikuluen eta bideoen bitartez erakusten dizkigu erdaraz. Ikusi dudana azkenekoa "soberan" dauden emakumei buruzkoa da, eta, laburbilduz, gizarte patriarkal baten ikuspuntutik baliorik ez duten emakumei buruzko azalpena da.

Landarte programa Uhartetarako Arakilen izanen da

Landarte ekimenaren xedea da auzolanean sorkuntza artistikoa bultzatzea. Garagarrilean izanen da Sakanan

UHARTE ARAKIL

Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuek Kulturako zuzendaritza Nagusiaren bitartez antolatutako ekimena da Landarte. Landa eta artea uztartzeko xedearekin sortu zen iaz, eta aurturtean bigarren edizioa egingen dute. Nafarroako hamabost herriko parte hartuko dute programan, haien artean Uhartetarako Arakil. Lurraren urratsak da aurtengo edizioaren izenburua.

Artisten gidaritzapean landa eremuetan sorkuntza artistikoa bultzatzea da Landarte programaren xedea. Hortaz, Uhartetarako Arakilen Amaia Molineta artistak parte hartuko du, eta herri-tarren laguntzarekin herriko eta inguru-tako lekuak bisitatu dituzte intereseko lekuetan argazkiak ateratzeko asmoz. Aurretik, guztien artean ibilal-

diaren puntu esanguratsua eta leku interesgarriak mapa batean kokatuko dituzte. *Lehenengo aieruak, geroko gogoetak* proiektuarekin Molinetek parte hartzaileekin batera herriaren etorkizunari buruzko gogoeta egin nahi du.

Berrikuntza

Bigarren urtez antolatu du Nafarroako Gobernuak Landarte programa. Iaz 2.700 bat parte hartzaile izan zituen, 5.000 biztanle baino gutxiagoko hamar herritan izan zen programa.

Aurturtean hamabost herriko parte hartuko dute programan. Aurtengo berrikuntza bezala Bodega Otazuren parte hartzea izanen da. Uda bukaeran, Landarteren edizioa amaituta, tailer guztietako topaketa bat antolatuko da bertan. Gainera, www.landarte.es martxan jarri dute.

Alde batetik, emakumea lan mundura gogoz sartzen ari da, eta, ondorioz, bere hezkuntza gero eta gehiago zaintzen du. Lehenago ezinezkoa zen aukera berri bat jarraitzea erabaki dezake emakumeak Txinan, familia ez izatea edo eta lanagatik atzeratzea. Hala ere, familia nahi duen emakumeak ere zenbait arazo izan ditzake, zeren gizon baten lepotik barre egiteko arrazoi nahikoa da emakumeak gizonak baino diru gehiago irabaztea edo ikasketa maila altuagoa izatea.

Ezkontzei buruz, ikasketei buruz, auzoetako biziari buruz, janariari buruz... gai ezberdin asko jorratzen ditu Javierzok, eta denak youtuben ditu zintzilik, nahi duenak ikusteko.

Baina, pixka bat sakonduz, gure gizarte okzidentalarekiko zenbait ezberdintasun ere ematen dizkigu. Txinatar gizarteak, beste asko bezala gurea barne, matxista da. Emakumearen papera haurrak izatea da, normalean gazte. 30 urte bete ondoren, emakumeak ez badu bikoterik ez eta haurrik, "soberan" dago gizartearentzat, gure euskal "neskazar" hitzaren parekoa litzateke.

Gure ezjakintasunetik, pentsa dezakegu emakume bakar kopurua oso txikia izango dela, seme bakarreko politikaren ondoren gizoneko kopurua emakumezkoena baino askoz handiagoa delako zenbait sektore demografikotan. Baina estatistikak ez du guztia esaten, eta gauza gehiago kontuan hartu behar dira.



Manez eta kobreak-en emanaldia.

Musika plazan zikloaren balorazio "oso positiboa"

Eguraldiak ez zuen lagundu igandean Etxarri Aranazko musika plazan zikloaren azken emanaldian eta herriko kultur etxean egin behar izan zuten musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako emanaldia.

Amaia Ijorra Kultur teknikariak azaldu du musika plazan ziklora "jende asko hurbildu" dela eta urtez-urte bere lekua hartzen ari den zikloa dela.

Altsasukoeekin Elkartasun kontzertua Altsasuko Gaztetxean

Kaos Urbano eta Artaza Combat taldeen kontzertua izanen da gaur, garagarriaren 15ean, 22:30ean, Altsasuko Gaztetxean. Altsasuko auzian auzipetuen aldeko elkartasun kontzertua da, hortaz, kontzertuaren sarrekin irabazitako guztia Altsasu auziko gazteek jasaten ari diren egoerari aurre egiteko bideratuko da.

Hondartzako haizearen eraginean margotzen

Itziar Nazabal artistak mustu zuen 'Nit de l'Art a Calafell' ekimena Tarragonako herrian. Esperientzia "ikaragarria" izan dela dio Nazabalek, hortaz, parte hartu ez ezik antolakuntzaren kolaboratzailea ere izan da artista altsasuarra.

ALTSASU

Arte galeria bat aire zabalean da Nit de l'Art a Calafell Itziar Nazabal artistaren hitzetan. Calafelleko itsas-pasealekuan (Tarragona) ospatu zen larunbatean, garagarriaren 9an, 18:00etatik 00:30era. "Zoragarria izan da horrelako zerbait antolatzea. Kontzeptu eta ideia oso politak da". Nazabalek artelanak erakutsi ez ezik, antolakuntzaren kolaboratzaile lanak egin ditu. Gainera, ekimena ere mustu zuen: "Gloria Grauk, ekimeneko zuzendari artistikoak, antolatzen hasi zenean berehala esan zidan nire performance bat egitea nahi nuen. Baietz esan nuen".

100 bat inguru artista parte hartu zuten aire zabaleko Calafelleko galerian. Artelanan artean margolanak nagusitu ziren, baina argazkilarien lanak eta eskulturak ere baziren. Nazabalek "sei-zazpi tamaina ertaineko eta beste sei edo zazpi txiki" artelan erakutsi zituen. "Performancea egiteko horma prestatzen egon nintzen beste batzuek zintzilikatu zituzten nire lanak. Horrelako zerbait antolatzea lan handia da".

Nazabalen performancea ostiralean egitekoa zen, udalaren areto batean, baina antolatzaileek artistaren performancearen



Itziar Nazabal Calafelleko performance-an. UTZITAKOIA

nondik norakoak jakin zutenean kalean egitea erabaki zuten: "bi gauzen artean konexio gehiago izateko. Espektakularragoa izateko eta mustutze ekitaldia izan zedin". Primeran egon zela dio Nazabalek.

Sortze prozesua

"Nire performanceak berez ez dira performanceak. Jendearen aurrean egiten dudana sortze prozesuak dira. Musikaren laguntzarekin nire barnera sartzen naiz eta esplosioaren bidez ateratzen dut". Prozesuan murgil-

tzen denean Nazabal ez da inguruan dagoenaz konturatu ere egiten. "Momentuan sentitzen dudana da". Performance bihurtutako sortze prozesu hauek kandelen argitasunaren intimitatean egitea gustatzen zaio Nazabali, Calafellen, aldiz, arratsaldeko argitasunarekin egin zuten. "Iluntasunean, kandelen argiarekin, esentzia berezi bat sortzen da. Baina antolatzaileek esan zidatenaren arabera ikaragarria gelditu zen egunez ere". Hala ere, datorren urterako ekimenaren bukaeran egiteko

proposatu zuten, "kandelen argia erabili ahal izateko".

Kandelen argia ez zuen izan, baina elementu berezi batekin aritu zen Nazabal Calafellen: hondartzara. "Xarma berezia dauka". Performanceak prestatzeko garrantzitsua hasierako musika dela azaldu du Nazabalek "inpultsoa ematen didana da, esplosioa sortzeko energia sortzen didana". Calafelleko performancea prestatzen denbora asko eman zuten: "lehenengo kanta hori aukeratzea asko kostatu zitzaidan. Lo gutxi egin nuen aurreko gauean". Hala ere, "musika oso inportantea da, hor dago eta entzuten dut, baina kasu honetan dudarik gabe hondartzaren haize hori ere izan zen garrantzitsua. Hori arnastea ikaragarria da". Azkenean, "erri-tual pixka bat ezberdina" egin zuten Nazabalek. Ildo berdina mantendu zuten, baina aurrekoetan ez bezala, "guztiz dutxatuta egongo banintz bezala" gorputza margoz busti zuten.

Ezer ez dagoen leku batean prozesu baten ondoren loreak agertzea; hori da publikoak miresten duena: "jendeak amaierako lana ikusten du, baina prozesuarekin disfrutatzen du". 30 edo 35 minutuko performanceak izan ohi dira, hortaz, sortutako artelanak egiteko ezin da asko konplikatu. "Prozesua birmoldatzen dut". Hortaz, loreak izan ohi dira elementu errazanak performanceak egiteko. "Ezin da margoa lehortu, beraz, horrekin jokatu behar duzu". Calafellen egindako "esplosioa oso alaitsu" izan zela azaldu du Nazabalek: laranjak, arrosak eta moreak nahastu zituen. "Turkesak ere sartu nituen itsasoaren ondoan nengoenez uraren ukitu hori emateko".

Jokin Kale 'Figurazioaren Maisuak' tailerrean

Gaur amaituko da Antonio Lopez eta Juan Jose Akerreta margolarien Iruñean egiten duten tailerra

LAKUNTZA

Antonio Lopez eta Juan Jose Akerreta margolarien Opuseko Unibertsitatearen museoan garagarriaren 11tik gaur arte *Figurazioaren Maisuak* tailerra eskaini dute. 25 ikaslek parte

hartu dute tailerrean, eta haien artean Jokin Alegria, Kale, lakuntzarra zegoen.

Laugarren aldia da Jokin Kale lakuntzarrak Lopezek eta Akerretak zuzentzen duten tailerrean parte hartzen duela.

Ikastaroan ikasleek bodegonen, giza gorputza naturalaren eta paisaien generoak landu dituzte. Pintatzea irakasleen eta ikasleen arteko hizketaldirako aitzakia da ere. Horrela, elkarrekin kontzeptuak garatzen dituzte.

Figurazioaren Maisuak tailerra bukatzean Lopezek bi margolan aukeratzen ditu, museoaren margolariaren bilduman erakutsiko direnak. Aurreko edizioetan Kaleren lanak aukeratu izan ditu.

Etorkizuna dantza taldearen urteurrena eta omenaldia

Nabari da Etorkizuna dantza taldeak eta Etxarri Aranazko abesbatzak elkar ezagutzen dutela. Etorkizuna dantza taldearen 25. urteurrena dela eta *Abesdantza* ikuskizuna eskaini zuten larunbatean Iortia kultur gunean. Abesbatzak bere euskal kantutegiko errepertorioa errepasatu zuten, eta doinu horiek koreografia berriekin dantzatu zituz-

ten adin guztietako dantzariak, ikusleek gozagarri.

Pieza bakarrean aritu zen abesbatza bakarrik, lehen zatiaren akaberan. Bigarreneko erretiratu egin ziren eta grabatutako musikarekin aritu ziren dantzariak. Sortzaile guztiak oholtzan zirela despeditu ziren. Agur berezia izan zen, dantza taldeko lehen irakasle izan zen Jesus Mari Garate zendu berriari omenaldia egin zioten eta hark sortutako *Hator Hator* koreografiarekin agurtu ziren.



Manolo Larraza Marin ardo kopa eskutan dakala.

"Sanadringue ardo normala da"

Perkixena etxien (Perkazenekoa) zon Larraza arduek, itxi berri debie Manolo Larraza Marin jubilatziekin batia. Ibiltzie ta musika-klasikue, zaletasunes gozatzen ai da guai. Hain famili-negoziyuan berri eman dugu San Adrian bezperan

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

1 Ixtien makina bat toki egarris utziko ziñuzkiyen?

Ez. Banatzen debien beste batzuk badaude. Ez do arazoik.

2 Nolas sortu zan arduandeye?

1880ko hamarkadan gu aittun-zaharra arduekin hasi zan Dorraun. Handik banatzen

zebien. Lehena aittun zaharra, gio aittune, aitte eta ni.

3 Nola aitzen zien?

Garei haiten gu aittunek eta Lizarra aldien kargatzen zebien 1000 litron bat o hola, ta gurdie eta hiru mandokin Azpeitiaño allatzen zien. Barrikan ta zagi betzuten yamaten zebien. Pentsa ze kondiziyotan einen zebien

biyejie. Astien behin eitten zebien.

4 Azpeitiatik bueltan gurdie kargatuik ekarko zebiel, ez?

Bei. Han diruik ez zakanak patatak in patzen zen.

5 Hala ibildu zien urtetan?

1920yen bideberriyen brea botatzien manduek ferrakin

irristetu eta bota eitten zien. Askotan hankan bat o beson bat hausten zebien. Orduben gu aittek pentsatu zen: o kamiona yosi o utzi. 1930en yosi zen kamiona. 12.000 pezta patu zen. Orduko adelanto handiye zan. Asko hobetu zan dena. Astien 2-3 biyeje eitten hasi zan.

6 Beste pausu bet gio.

Handitzen fan zan eta aittek pentsatu zen Etxarri zala puntu ona, konexiyue Lizarraldetik ta Gipuzkuekin. Dorrauko ardoteye oso txikiye zan ta Etxarrin eittie pentsatu zen. 1950yen izen zan hori. Lehena, gu aittek zakan asmue guai monjak den tokiyen eitteko. Azkeneko momentuben aldemena interesatu zan ta detrxue zakanes harrek yos zen. Gareti betien hau larreñek zien. Hemengo nausiekin konpondu ta hau eittie erabai zebien. Kruzien bertan, han beño hobekiyo. Herriyen bertan. Oso puntu ona, kruze-kruzien. Lizerraldia, Gipuzkua aldia, Gasteiz aldia... Puntu ona, bei.

7 Atayek zabalik zenien kupel handi betzuk ikusten zien.

Ardue kupeletan ta zisternetan ekartzen zan. Lurrien de depositubek de. Dena zulue da. Hamarren bat depositu de, 100.000 litrondako kapazidedie o hola. Kanpoko kamionak de etortzen zien arduekin gero. Beste modu betien.

8 Hori ikusis kokortuko ziñen?

Orduben denak izen ber giñen o apezak o monjak. Seminaia bieldu zubieten. Bokaziyoik ez nakan ta bi urtes yon ta etor nintzen. Ta aittek esan zuten: ez tezu estudietzie nehi? Ta 10

urtes gio hemen. Aittakin zagiye eta garrafonak betetzen ibiltzen giñen. Ta berakin faten nintzen, launtzia. Hemen inguben, beño geyena gu Gipuzkun ibiltzen giñen. Han Naparra oso famosue da.

9 Zuk de Lizarra aldetik ekartzen ziñuben ardue?

Lizarran mastiye atia zittubien, zereala sartu zan. Orduben, biherko ta, fan ber billa behero. Hasi giñen Allo, Cintruenigo... Erribera aldien, ta Errioxatik.

10 Sanadringues makiñat kontu aittu ttu. Misteyue argitzeik?

Ardo normala da, iñungo nahas-ketaik bekue. Erribera aldekie.

11 Zenbat litro yamaten die?

Depende urtiek. Ordutik honutze asko jetsia. Orduben jende askok garrafon bat o bi yamaten zittuben. Bueltakuen, hutsik ekarri birrien, beteta ekartzen zebien, orduben kontsumue izugarri handiye zan. Gertatzen zien kasuek, hiru-lau laun bazkaltzen ta 20 litroko garrafona. Bueltako gurdie kontrapisetzeko. Astegune o astebube izetie beño geyena nabaitzen dana egueliye da. Hemen geyena yan zana izen zan 1.300 litro, guai dala 20 urte o hola. Launbeta tokatu zan ta kriston egueliye berue ta... Urtiek izeten die 600-800... Bakarren batzuk lurpien sartzen debiela ta... Ez dau meyoratzen, arduek galdu eitten dau. Ardue be tokiyen yon ber da, bodegan, tenperatura batien. Guai, normalien, astes jendiek oso ardo gutxi yaten dau. Aste akaberan, bei. Beye jendiek kalidedie billetzen dau.

Osorik: www.guaixe.eus

Bazkide zozketa

Garagarrileko sariak

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA